


Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan
Medio Ambiente en la Comunidad Autónoma del País Vasco



Hitzaurrea


Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiro Sistemaren Diagnostikoa da Ingurugiroko Esparru Programa egiteko lehen urratsa. Agiri honetan, beraz, ez dira helburu eta neurri zehatzak sartu; aitzitik, jarduera sozio-ekonomikoen eta

ingurugiroaren arteko harremanen kudeaketak hurrengo 10 urteetan sortuko dituen mehatxuei eta aukerei buruzko hausnarketa estrategikoa jasotzen da. Ingurugiro Sistemaren kudeaketaren kontzeptua da, hain zuzen, hausnarketa estrategiko honen berritasun nagusietako bat, gure bizimoduaren eta ingurunearen arteko aipatu elkarreraginen ikuspegi globala emateko kausa-ereduan oinarritzen dela.

Diagnostiko hau egiteko prozesuak honako lau ardatzak izan ditu oinarri:

Lehenengoa, euskal gizarteak ingurugiroari dagokionez zer eskatzen duen jakitea. Ingurugiro-kalitateari zer eskatzen dion eta ingurugiroa zaintzeko berak inplikatzeko zein jarrera duen jakiteko beharrezko galderak hiritarrari egitea.

Halaber, Ingurugiroarekiko EAeko ekonomia-sektore nagusien oraingo egoera ebaluatu da eta, batez ere, etorkizunear horien bilakaera nolakoa izango den balioetsi da. Balioespen horiek mehatxuak antzeman diren lekuetan prebentzioko neurriak hobetzeko aukerak aprobetxatzeko balioko digute.



Prólogo

El Diagnóstico del Sistema Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco es el primer paso del proceso de elaboración del Programa Marco Ambiental. En este docu-

mento, por lo tanto, no se han incluido objetivos ni medidas concretas sino que contiene una reflexión estratégica sobre las amenazas y oportunidades que conllevará durante los próximos 10 años la gestión de las relaciones entre las actividades socioeconómicas y el medio ambiente. Precisamente, es el concepto de gestión integral del Sistema Ambiental una de las principales novedades que aporta esta reflexión estratégica, y que se apoya en un modelo causal para facilitar la visión global de las citadas interacciones entre nuestro modo de vida y el entorno.

El proceso de elaboración del presente Diagnóstico se ha llevado a cabo en base a cuatro ejes:

En primer término, el conocimiento de la demanda ambiental existente por parte de la sociedad vasca. Se ha involucrado a la sociedad en el proceso trasladando a la ciudadanía las cuestiones necesarias para conocer cuál es su demanda de calidad ambiental y la disposición que tiene para implicarse en la preservación del medio ambiente.

Igualmente se ha evaluado el presente y sobre todo se ha estimado cómo evolucionarán en el futuro los principales sectores económicos de la CAPV en su relación con el medio ambiente. Esta estimación nos permitirá aprovechar las oportunidades de mejora para poner en marcha actuaciones preventivas allí donde se hayan detectado amenazas.

Hirugarrenik, esan beharra dago lehen aldiz administrazioko, enpresa pribatuetako, Unibertsitateetako, gobernuz kanpoko erakundeetako, etab. etako 80 adituk baino gehiagok elkarrekin, **EAEko ingurugiro-arazo nagusiak** identifikatu dituztela. Arazo horiek, besteak beste, honakoak dira: kontinenteko uren eta itsasoko kalitatea, airearen kalitatea gure hirietako ingurugiroa eta natur baliabideen kudeaketa. Gure bizimodua, gure produkzio- eta kontsumo-eredua aldatu egin behar dugula, eta, beraz, ingurugiroarekiko beste harreman bat izatearen aldeko apustua egin beharrean gaudela izan da ateratako ondorio nagusia.

Azkenik, garrantzi handi-handiko alderdia politika publikoen kudeaketa da. Ezin dugu **Administrazioaren lan-eremu guztietan ingurugiroaren aldagaia sartu** gabe denbora gehiago pasa. Ingurugiro-sistema egoki kudeatzeko erronka globalak Administrazioa izan behar du aitzindari eta horretarako eredu izan behar du. Politika publiko guztiak ingurugiroaren ikuspegitik koordinatu, eraginkorrak izan daitezzen eragin eta ezartzea ahalik eta gehien sustatu behar da Ingurugiroko Esparru Programaren indarraldian. Bestela, zaila izango da beren eguneroko jardunetan ingurugiro-alderdiak sar ditzaten hiritarrei eta ekonomia-sektoreei eskatzea.

Laburbilduz, diagnostiko honi esker, arazoak ez ezik, Ingurugiroko Esparru Programan jarri behar ditugun helburuak lortzearen hobetzeko aukerak eta egon daitezkeen estrategiak eta bideak ere baditugu. Bide horietako batzuk, oraindik erabili ez diren arren, dagoeneko indar handia hartzen ari dira eta honakoak dira: **Elkarreagina** (hiritar eta eragile sozio-ekonomiko guztiena), **Berrikuntza** (gure ohiturak eta ereduak aldatzeko), **Integrazioa** (ingurugiroarena Administrazioaren sektore-politika guztietan) eta **Ezarpena** (jasangarritasunaren bidean aurrera egiten lagunduko diguten lehen neurriak lehenbailehen hartu beharra baitago).



En tercer lugar hay que destacar que por primera vez se han identificado de manera conjunta por más de 80 personas expertas de la administración, empresas privadas, Universidad, asociaciones no gubernamentales, etc. los **problemas ambientales más importantes en la CAPV**, entre los que se pueden citar la calidad de las aguas continentales y marinas, la calidad del aire, los residuos peligrosos, el medio ambiente de nuestras ciudades y la gestión de los recursos naturales. La conclusión general es que debemos cambiar nuestro estilo de vida, nuestro modelo de producción y consumo y que, en definitiva, debemos apostar necesariamente por una nueva relación en el medio ambiente.

Por último, un aspecto importantísimo lo configura la gestión de las políticas públicas. No podemos demorar más la **integración de la variable ambiental en todos los ámbitos de trabajo de la Administración**. El desafío global de gestionar adecuadamente el sistema ambiental debe contar con el liderazgo de la Administración y para ello hay que empezar dando ejemplo. Los mecanismos de coordinación, eficiencia e integración ambiental en todas las políticas públicas deben impulsarse al máximo a lo largo del periodo de vigencia del Programa Marco Ambiental. En caso contrario resultará difícil exigir a la ciudadanía y a los sectores de actividades económicas un compromiso urgente para incorporar los aspectos ambientales en su quehacer diario.

En resumen, este diagnóstico nos ha revelado no sólo los problemas sino además las oportunidades de mejora y las posibles estrategias y caminos a seguir para alcanzar los objetivos que nos vamos a plantear en el Programa Marco Ambiental. Algunos de estos caminos, aunque no se hayan decidido todavía, aparecen con incuestionable fuerza en este momento y los podemos expresar en cuatro conceptos, las 4 "I's": **Interacción** (de toda la ciudadanía y de los agentes socioeconómicos), **Innovación** (para cambiar nuestros hábitos y modelos), **Integración** (del medio ambiente en las políticas sectoriales de la Administración) e **Implantación** (ya que hay que poner en marcha las medidas que nos permitan avanzar por la senda de la sostenibilidad).

Eskerrak

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Sailak hiru hilabete luzez lan egin duen eta esperientziak trukatu dituen diziplina anitzeko talde handi baten laguntzaz egin du EAEko Ingurugiro Sistemaren Diagnostiko hau.

Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Sailburu Sabin Intxaurreagak eta Ingurugiro Sailburuorde Esther Larrañagak, berriaz eskerrak eman nahi dizkiete honakoiei:

Ingurugiro Baliabideen Zuzendari Anton Aranburu jaunari, Ingurugiro Kalitaterako Zuzendari Tomas Epalza jaunari eta IHOBE, S.A.ko Zuzendari Jose Luis Aurrecochea jaunari agiri hau egiten emandako laguntzagatik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiro Batzordea osatzen duten erakundeei eta EEE, CADEM, SPRI, IIHII eta IHOBE erakunde publikoei emandako laguntzagatik,

Honako teknikari eta adituei lanean parte hartzeagatik:

Juan Jose Aguirre, Jose Allende, Carlos Alonso, Inmaculada Alonso, Lucio Alonso, Andres Alonso, Jagoba Alvarez, Ana Alzola, Javier Ansorena, Arturo Anton, Jon Ariño, Iñaki Barcena, Txomin Bargas, Joseba Beldarrain, Javier Belza, Carmelo Bengoetxea, Iñaki Benito, Roberto Bermejo, Miren Bilbao, Angel Borja, Jose Angel Cachorro, Honorino Casado, Paulino Corcuera, Emilio de Francisco, Mikel de Francisco, Jose Miguel Edeso, Ander Elgorriaga, Iñaki Erauskin, Jesus Maria Erkizia, Alberto Fernandez, Eusebio Gainza, Inmaculada Gallastegui, M^a Carmen Gallastegui, Iñigo Garayalde, Begoña Garcia de Vicuña, Montserrat Garcia, Matxalen Garmendia, Jesus Ibarlucea, Mikel Insunza, Iñaki Inoriza, Eusebio Larrañaga, Javier Lopez Iturrate, Jose Marañon, Imanol Martin, Iñaki Martinez de Luna, Jose Ramon Mauleon, Itziar Montejo, Angelica Moreno, Juan Carlos Mugica, Jose Luis Musatadi, Karmele Oleaga, Miren Onaindia, Carmen Orbieta, Luis Andres Orive, Goyo Ortiz de Urbina, Rosa Ortiz, Amelia Ortubai, Jose Antonio Otero, Javier Perea, Antxon Perez Calleja, Julen Rekondo, Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga, Pep Ruiz, Jose Maria Saenz de Galdeano, Jose Luis Saez de Ormijana, Azucena Salazar, Angelica San Martin, Ricardo Suarez, Iñaki Susaeta, Josu Ugarte, Jesus Zatika eta Roberto Zubiagari.

Javier Agirre, Marian Barquin, Rosario Barturen, Alexander Boto, Agustin Esparta, Fermin Garmendia, Juan Antonio Iglesias, Marta Iturribarria, Patxi Larrañaga, Juan Luis Llorens, Maribel Martinez eta Ignacio Quintanari koordinazio- eta erredakzio-lanak eta diagnostikoaren azken txostena egiteagatik.

IHOBEko administrazioko eta LKS Consultores-eko langileei agiri hau egiteagatik.



Agradecimientos

El Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco ha elaborado el presente Diagnóstico del Sistema Ambiental de la CAPV apoyado por un amplio equipo multidisciplinar que ha dedicado esfuerzos y compartido experiencias durante más de tres meses.

El Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, D. Sabin Intxaurreaga y la Viceconsejera de Medio Ambiente Dña. Esther Larrañaga desean agradecer expresamente:

La contribución al presente documento del Director de Recursos Ambientales D. Anton Aranburu, el Director de Calidad Ambiental D. Tomás Epalza y el Director General de IHOBE, S.A. D. José Luis Aurrecochea.

La colaboración de todas las instituciones integrantes de la Comisión Ambiental del País Vasco así como de los organismos públicos EVE, CADEM, SPRI, CEIDA e IHOBE.


La participación de los técnicos y expertos siguientes:

Juan José Aguirre, José Allende, Carlos Alonso, Inmaculada Alonso, Lucio Alonso, Andrés Alonso, Jagoba Álvarez, Ana Alzola, Javier Ansorena, Arturo Antón, Jon Ariño, Iñaki Barcena, Txomin Bargos, Joseba Beldarrain, Javier Belza, Carmelo Bengoetxea, Iñaki Benito, Roberto Bermejo, Miren Bilbao, Angel Borja, José Angel Cachorro, Honorino Casado, Paulino Corcuera, Emilio de Francisco, Mikel de Francisco, José Miguel Edeso, Ander Elgorriaga, Iñaki Erauskin, Jesús María Erkizia, Alberto Fernández, Eusebio Gainza, Inmaculada Gallastegui, M^a Carmen Gallastegui, Iñigo Garayalde, Begoña García de Vicuña, Montserrat García, Matxalen Garmendia, Jesús Ibarlucea, Mikel Insunza, Iñaki Inoriza, Eusebio Larrañaga, Javier López Iturrate, José Marañón, Imanol Martín, Iñaki Martínez de Luna, José Ramón Mauleón, Itziar Montejo, Angélica Moreno, Juan Carlos Múgica, José Luis Musatadi, Karmele Oleaga, Miren Onaindia, Carmen Orbieta, Luis Andrés Orive, Goyo Ortiz de Urbina, Rosa Ortiz, Amelia Ortubai, José Antonio Otero, Javier Perea, Antxón Pérez Calleja, Julen Rekondo, José Ignacio Ruiz Olabuenaga, Pep Ruiz, José María Saenz de Galdeano, José Luis Sáez de Ormijana, Azucena Salazar, Angélica San Martín, Ricardo Suárez, Iñaki Susaeta, Josu Ugarte, Jesús Zatika, Roberto Zubiaga.

Las labores de coordinación, redacción y elaboración final del diagnóstico realizadas por parte de Javier Aguirre, Marian Barquín, Rosario Barturen, Alexander Boto, Agustín Esparta, Fermín Garmendia, Juan Antonio Iglesias, Marta Iturribarria, Patxi Larrañaga, Juan Luis Llorens, Maribel Martínez e Ignacio Quintana.

Al personal administrativo de IHOBE y de LKS Consultores por la confección del presente documento.





1. SARRERA	1. INTRODUCCIÓN	15
2. EAE-KO MAKROINGURUNEA	2. EL MACROENTORNO DE LA CAPV	17
2.1 <i>Kokapen geografikoa</i>	2.1 Contexto geográfico	17
2.2 <i>Testuinguru sozio-ekonomikoa</i>	2.2 Contexto socioeconómico	18
2.3 <i>ingurugiro-testuingurua</i>	2.3 Contexto ambiental	21
3. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK	3. CONDICIONES DE VIDA EN LA CAPV	23
3.1 <i>Biztanleria</i>	3.1 Población	23
3.2 <i>Ekonomia</i>	3.2 Economía	25
3.3 <i>Gizartea</i>	3.3 Sociedad	25
3.4 <i>Osasuna</i>	3.4 Sanidad	26
3.5 <i>Hezkuntza</i>	3.5 Educación	27
3.6 <i>Etxebizitza</i>	3.6 Vivienda	29
4. EAE-KO INGURUGIRO-SISTEMA	4. EL SISTEMA AMBIENTAL DE LA CAPV	31
5. INDAR ERAGILEAK	5. LAS FUERZAS MOTRICES	33
5.1 Garapen ekonomikoaren eredia	5.1 El modelo de desarrollo económico	33
5.1.1 <i>Ereduaren ezaugarriak</i>	5.1.1 Características del modelo	33
5.1.2 <i>Lehen sektorea</i>	5.1.2 El sector primario	35
5.1.3 <i>Industria-sektorea</i>	5.1.3 El sector industrial	39
5.1.4 <i>Eraikuntza-sektorea</i>	5.1.4 El sector de la construcción	42
5.1.5 <i>Energia-sektorea</i>	5.1.5 El sector energético	43
5.1.6 <i>Garrario-sektorea</i>	5.1.6 El sector del transporte	45
5.1.7 <i>Zerbitzu-sektorea</i>	5.1.7 El sector servicios	47
5.1.8 <i>Garapen ekonomikoaren ereduaren AMSA analisisa</i>	5.1.8 Análisis DAFO del modelo de desarrollo económico	49
5.2 Garapen sozialaren eredia	5.2 El modelo de desarrollo social	51
5.2.1 <i>Kontsumo-gizartea</i>	5.2.1 La sociedad de consumo	51
5.2.2 <i>Mugikortasun-eskaera</i>	5.2.2 La demanda de movilidad	53
5.2.3 <i>Euskal gizartearen ingurugiro-eskaera</i>	5.2.3 La demanda ambiental de la sociedad vasca	55
5.3 Gizarte-garapenaren ereduaren AMSA analisisa	5.3 Análisis del modelo de desarrollo social en la CAPV	57

6. INGURUGIRO-GAIAK	6. LOS TEMAS AMBIENTALES	59
6.1 Baliabide naturalen kontsumoa	6.1 Consumo de recursos naturales	60
6.1.1 Baliabide materialen kontsumoa	6.1.1 El consumo de los recursos materiales	60
6.1.2 Energia-baliabideen kontsumoa	6.1.2 El consumo de recursos energéticos	63
6.1.3 Ur-kontsumoa	6.1.3 El consumo de agua	67
6.1.4 Lurzoru-kontsumoa	6.1.4 El consumo de suelo	68
6.2 Berotegi-efektua eta klima-aldaketa eragiten duten gasak isurtzea	6.2 Emisión de gases de efecto invernadero y cambio climático	74
6.3 Produktu kimikoak isurtzea eta sakabanatzea	6.3 Emisión y dispersión de de productos químicos	78
6.3.1 Airearen kalitatea	6.3.1 Calidad del Aire	79
6.3.2 Estratosferako Ozonoa suntsitzen duten konposatuak isurtzea	6.3.2 Emisión de compuestos que destruyen el Ozono Estratosférico	83
6.3.3 Troposferako Ozonoaren aitzindariak isurtzea	6.3.3 Emisión de precursores de Ozono Troposférico	83
6.4 Hondakinak sortzea	6.4 Generación de residuos	87
6.4.1 Hiri-hondakinak	6.4.1 Residuos Urbanos	88
6.4.2 Hondakin arriskutsuak	6.4.2 Residuos Peligrosos	89
6.4.3 Hondakin geldoak	6.4.3 Residuos Inertes	91
6.4.4 Nekazaritza eta Abeltzaintzako hondakinak	6.4.4 Residuos Agropecuarios	92
6.5 Bioaniztasuna eta paisaia	6.5 Biodiversidad y paisaje	98
6.5.1 Bioaniztasuna	6.5.1 Biodiversidad	98
6.5.2 Paisaia	6.5.2 Paisaje	102
6.6 Kontinenteko uren kalitatea	6.6 Calidad de las aguas continentales	105
6.6.1 Ibaiko ekosistemak	6.6.1 Ecosistemas fluviales	105
6.6.2 Lurrazpiko urak	6.6.2 Aguas subterráneas	108
6.6.3 Saneamendua	6.6.3 Saneamiento	109
6.7 Itsasoko eta itsasertzeko ingurugiroa	6.7 Medio ambiente marino y litoral	112
6.7.1 Itsasoko eta itsasertzeko ingurugiroaren kud.	6.7.1 Gestión del medio ambiente marino y litoral	112
6.7.2 Isurketak	6.7.2 Vertidos	113
6.7.3 Estuarioetako uren saneamendua eta garbiketa	6.7.3 Saneamiento y depuración de aguas en estuarios	114
6.7.4 Itsasertzeko uren kalitatea	6.7.4 Calidad de aguas litorales	115
6.7.5 Bainurako uren kalitatea	6.7.5 Calidad de aguas de baño	117
6.8 Lurzoruaren kalitatea	6.8 Calidad del suelo	120
6.8.1 Lurzoruaren higadura	6.8.1 Erosión del suelo	120
6.8.2 Lurzoruko poluzioa	6.8.2 Contaminación del suelo	122
6.9 Hiriko ingurugiroa	6.9 Medio ambiente urbano	127
6.9.1 Hiriko mugikortasuna	6.9.1 Movilidad urbana	128

6.9.2 Hiriko airearen kalitatea	6.9.2 Calidad del aire urbano	128
6.9.3 Hiriko zarata	6.9.3 Ruido urbano	131
6.9.4 Hiriko espazioa eta paisaia	6.9.4 Espacio y paisaje urbanos	132
6.9.5. Degradatutako guneak	6.9.5 Áreas degradadas	134
6.10 Arrisku naturalak eta teknologikoak	6.10 Riesgos naturales y tecnológicos	137
6.10.1 Arrisku naturalak	6.10.1 Riesgos Naturales	137
6.10.2 Arrisku teknologikoak	6.10.2 Riesgos tecnológicos	139
7. ERANTZUNAK	7. LAS RESPUESTAS	143
7.1 Euskal gizartea	7.1 La sociedad vasca	143
7.2 Agente ekonomikoak	7.2 Los agentes económicos	146
7.3 Administrazioa	7.3 La administración	149
7.3.1 EAEko ingurugiro gastua eta inbertsioa	7.3.1 El gasto y la inversión ambiental en la CAPV	150
7.3.2 Euskal Administrazioaren ingurugiroari buruzko programak eta ekintza-ildoak	7.3.2 Programas y líneas de actuación medioambiental de la Administración Vasca	152
7.3.3 Ingurugiroa Euskal Administrazio Publikoan txertatzea. Faktore nagusiak	7.3.3 Integración del medio ambiente en la Administración Pública Vasca. Factores clave	156
8. ETORKIZUNEKO ERRONKAK	8. LOS DESAFÍOS EN EL FUTURO	161
8.1 Indar eragileei buruzko ikuspegia	8.1 Perspectivas de las fuerzas motrices	161
8.2 Ingurugiro-gaiei buruzko ikuspegia	8.2 Perspectivas de los temas ambientales	164
8.3 Eaeko jarduketak-aukerak	8.3 Las posibilidades de actuación en la CAV	165
8.4 Erantzunei buruzko ikuspegiak	8.4 Perspectivas de las respuestas	166
9. ONDORIOAK	9. CONCLUSIONES	167
10.ERREFERENTZIAK	10. REFERENCIAS	183
I. ERANSKINA: Ingurugiro-gaietan berriaz jarduteko proposamenak	ANEXO I: Propuesta de actuaciones específicas en los temas ambientales	189
II. ERANSKINA: Lan-Talde Sozialak proposatutako ekintzak	ANEXO II: Actuaciones propuestas por el Grupo de Trabajo Social	203
III. ERANSKINA: Euskal Administrazioak ingurugiroaren alorrean bultzatutako programak eta ekintza-ildoak	ANEXO III: Programas y líneas de actuación medioambiental de la Administración Vasca	208



Sabin Intxaurreaga
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua
Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente

*NBIP (UNEP) Nazio Batuen Ingurugiroari buruzko Programaren "Munduko ingurunearen egoeraz, 2000" txostenak aitortu egiten du gar egungo politikek ez dutela etorkizun jasangarririk ahalbidetuko ez eskualdean ez mundu osoan. Beste zenbait herrialdetan probatu –arrakastaz probatu ere– izan diren hainbat neurri aztertu ditu dokumentu honek, eta norabide jasangarriagoa izate alde-
ra honako ekimenok bultzatzea proposatzen du: ingurugiro-politiken integrazio geografikoa eta sektorekakoa, merkatu-oinarritutako pizgarriak, baliabide instituzional eragin-
korrak eta aldaketak burutzeko behar den finantzazioa.*

Gure inguruneari dagokionez, honela definitu zuen Europako Batasunak bere V. Ingurugiro Ekimen Programa (1992-2000): "...goitik beherako aldaketa aurreko neurriekin alderatuta, ezin baitugu gehiago itxaron, ezta hutsik egin ere". Nolanahi ere, programaren berrikuspenean aitortzen da ez dela aurrera egin garapen jasangarriaren bidean –hainbat alorretan hobekuntzarik nabaritu den arren–, eta are gutxiago zenbait arazok (klima-aldaketa, hondakinen sorrera, substantzia kimikoen barreiaketa eta luraren, ekosistema naturalen eta, oro har, bizi-kalitatearen hondamena) bere horretan iraun ez ezik txarrera ere egin dutela ikusirik.

Hamar urte igaro dira, eta hemen gabilitza, bai Europako Batasuna bai Euskal Autonomia Erkidegoa, –norbera bere mailan– garapen-ereduak behar duen aldaketaz hausnarrean. Izan ere, jasangaitza izaten jarraitzen du ereduak, eta hustubideen baliabide zein asimilazio-ahalmenak mugarik ez baleukate bezala segitzen dute, hainbat zuzentze-politika aplikatu arren.

Desafio latza dakarkio egoera honek Administrazioari: jasangarritasunaren alde jardutea, hori hautatzea irtenbide bakartzat, eta horren bitartez irauli ahal izatea ingurugiro-arazo nagusien joera kaltegarriak. "Jasangarritasunaren aldeko Euskal Autonomia Erkidegoaren Konpromisoa" –Lehendakariak izenpetua– da Eusko Jaurlaritzaren balio eta printzipio-erreferentzia gaur egungo garapen-eredua

El informe sobre "Perspectivas del medio ambiente mundial 2000" del Programa de Naciones Unidas sobre Medio Ambiente PNUMA (UNEP) reconoce que las políticas actuales no van a ofrecer un futuro sostenible ni en el plano regional ni mundial. Este documento ha estudiado diversas respuestas que han sido probadas con éxito en otros países y propone para dar un rumbo más sostenible la aplicación de líneas como: la integración geográfica y sectorial de políticas ambientales, los incentivos basados en el mercado, los mecanismos institucionales eficaces y la financiación necesaria para llevar a cabo las reformas.

En nuestro entorno, la Unión Europea definía su V Programa de Acción Medioambiental (1992-2000) como un giro de 180° sobre las anteriores respuestas porque "no podemos esperar más y no podemos equivocarnos". No obstante, en la revisión del Programa se reconoce que a pesar de haberse dado progresos en diversos ámbitos no se ha avanzado hacia el desarrollo sostenible, menos aún tras conocer como persisten y se agravan ciertos problemas como el cambio climático, la generación de residuos, la dispersión de sustancias químicas, la degradación y uso del suelo, los ecosistemas naturales y la calidad de vida en general.

Diez años después la Unión Europea y la Comunidad Autónoma del País Vasco nos encontramos cada uno a su nivel, repensando el cambio necesario de un modelo de desarrollo que a pesar de las políticas aplicadas se sigue mostrando insostenible y se comporta como si los recursos y la capacidad de asimilación de los sumideros fueran ilimitados.

Ante esta situación a la Administración se nos plantea un gran reto por delante: apostar como única respuesta posible por la sostenibilidad, de forma que podamos invertir las tendencias perjudiciales de los principales problemas ambientales. El "Compromiso por la Sostenibilidad del País Vasco", ratificado por el Lehendakari, se constituye en el referente de los valores o

norabidez aldatzeko, natur baliabideak eta ondorengo belaunaldien eskubideak hondatuko ez dituen bizi-kalitate eta aurrerapen estandar berriaren alde eginez betiere.

Honako Diagnostiko honekin ekin diogu ingurugiro-politika berria eraikitzeari. Txosten hau egiteko Euskal Administrazioaren beraren alderdi ahulak eta sendoak zehaztu behar izan ditugu, batetik, eta, bestetik, 1998ko Ingurugiro Egoeraren txostena oinarritzat harturik aztertu dugu gaur egungo egoera, ingurugiro-sistemari presioa egiten dioten etorkizuneko joeren proiektzioa eginez, politika publikoak indarrean jartzeko mehatxu eta aukera berriak bilatuz.

Hona hemen, azkenik, Diagnostikoaren ondorioak:

- *Aurrerapausorik eman da, baina hobetu beharra dago egoera;*
- *Lehentasuna duten ingurugiro-arazoak definitu dira;*
- *Ingurugiro-gaiaren behar hainbateko integrazioa dago sektorekako jardueretan;*
- *Informazio-hutsuneak dauzkagu, ahalik eta azkarren konpondu beharrekoak;*
- *Berrikuntza-ahalmen sendoa nabari da eragile guztietan; aukera handia dugu hor;*
- *Herritarrak sentsibilizatzea eta haien ekimena bultzatzea izan behar dute helburu informazioak eta parte-hartzeak; eta*
- *Politika berria garatzeko tresna zein teknologia berriak erabiltzea planteatu da.*

Ikuspegi kritiko hau oinarri harturik, dauzkagun gabeziak gainditu eta lortutako arrakastak sendotzeko neurriak diseinatzea dagokigu hemendik aurrera, 2012 Ingurugiroko Esparru Programaren hurrengo faseak eratuz.

principios en que se apoya el ejecutivo vasco para redefinir el actual modelo de desarrollo, apostando por un nuevo estándar de calidad de vida y progreso que no comprometa ni los recursos naturales ni los derechos de las generaciones futuras.

Para construir la nueva política ambiental, hemos comenzado con el presente Diagnóstico. El trabajo recogido en este documento ha conllevado por una parte la identificación de las debilidades y fortalezas internas a la propia Administración Vasca, y por la otra, hemos analizado la situación actual basándonos en el Estado del Medio Ambiente de 1998 y proyectando las tendencias futuras de las fuerzas que presionan sobre el sistema ambiental intentando descubrir amenazas y oportunidades para la intervención de las políticas públicas.

Por último, como conclusiones del Diagnóstico destacaría las siguientes:

- *Se han producido ciertos avances, pero resulta una situación mejorable;*
- *Se han definido los problemas ambientales prioritarios;*
- *Existe una insuficiente integración del medio ambiente en las actuaciones sectoriales;*
- *Tenemos carencias de información que hay que solucionar;*
- *Disponemos de una fuerte capacidad innovadora en todos los agentes como oportunidad;*
- *La información y la participación deben servir para sensibilizar y motivar hacia la acción de la ciudadanía; y*
- *Se ha planteado el uso de nuevos instrumentos y tecnologías para una nueva política.*

Sobre la base de esta mirada crítica nos corresponde a partir de ahora diseñar medidas de actuación para superar los déficits existentes y reforzar los éxitos obtenidos, configurando las siguientes fases del Programa Marco Ambiental 2012.



Esther Larrañaga
Ingurumen Sailburuordea
Viceconsejera de Medio Ambiente

Ingurugiro Sistemaren Diagnostikoa egiteko hausnarketa-prozesuari ekin genion kausa/efektu harremanen bidez hasi ginen aztertzen ingurugiroa, ekonomia, gizartea eta ingurugiroaren arteko elkarreaginaren konplexutasuna ikusirik. Horrenbestez, Ekonomia eta Lankidetzaren Garapen Erakundeak (OECD) eta Europako Ingurugiro Agentziak erabiltzen duten Kausazko Ereduari (Indar Eragileak, Presioak, Inpaktuak eta Erantzunak) heldzea erabaki genuen.

Ingurugiro-politikaren ikuspegi berri horri esker identifikatu ahal izan ditugu hainbat ingurugiro-gai sentikor (klimaren aldaketa, bioaniztasuna, airearen eta uraren poluzioa, hondakinak, lurzorua eta abar), baita beren presioen bidez inpaktuak sortzen dituzten eragileak ere (nekazaritza, industria, energia, garraioa...). Gai eta eragile metaketa horrek desblokeatu egiten du administrazioen zatiketa presioen eta horien sorreraren kontrolari dagokionez; horrez gain, erraztu egiten du lokal/global efektu elkargurutzatuak ulertzea, aipatu presioek natur inguruneetan eragiten duten elkarmenpekotasuna konprenitzea.

Laurogei adituek gora aritu dira honako Diagnostiko hau prestatzen, lau lan-taldetan banatuak (ekonomia, gizarte, teknika eta erakundeen alorretan), eta bi inkestaren bidez (2.000 lagunetik gora galdekatu dira) jaso dira euskal gizartearen ingurugiro-eskariak. Talde horiek identifikatu dituzte Ingurugiro Sistemaren giltzarriak: batetik, lehentasuna duten ingurugiro-arazoak; bestetik, politikak aplikatzeko dauden mugapenak; eta, azkenik, kudeaketa-sistema ego-kienak.

EAEko ingurugiro-politikaren ikuspegi berriak honakoa proposatzen du ezinbesteko betekizun gisara: ebaluagarria eta neurgarria izatea politika hori, are gehiago epe luzearako prozesuan, ekonomiaren eta ingurugiroaren zikloek hainbat tarte eskaintzen baitute kausa/efektu harremanei buruzko datuetan bilakaerarik izan den antzemateko. Aipatu sistemak –ingurugiro-prozesuen elkarreaginaren ezaupidean sakontzeaz gain– neurtu egin beharko ditu gastu publikoa-

Cuando iniciamos el proceso de reflexión para la elaboración del Diagnóstico del Sistema Ambiental, y a la vista de la complejidad de las interacciones entre la economía, la sociedad y el medio ambiente, procedimos a analizar el medio ambiente a través de las relaciones causa-efecto, por lo que adoptamos un Modelo Causal que utilizan la OCDE y la Agencia Europea de Medio Ambiente (Fuerzas Motrices, Presiones, Impactos y Respuestas).

Este nuevo enfoque de la política ambiental, nos ha permitido identificar una serie de temas ambientales sensibles (cambio climático, biodiversidad, contaminación atmosférica y del agua, residuos, suelos, etc.) y los agentes que contribuyen con sus presiones a generar impactos (agricultura, energía, industria, transporte, etc.). Esta agrupación de temas y agentes desbloquea la división administrativa actual en el control de las presiones y sus orígenes y además facilita la comprensión de los efectos cruzados global/local o interdependencia que dichas presiones ejercen sobre los medios naturales.

En la elaboración del presente Diagnóstico han colaborado más de 80 personas expertas a través de cuatro grupos de trabajo en los ámbitos económico, social, técnico e institucional y se ha recogido la demanda ambiental de la sociedad vasca a través de dos encuestas a más de 2.000 personas. Estos grupos han identificado las claves de gestión del Sistema Ambiental como son, por una parte, los problemas ambientales prioritarios; por otra, los condicionantes para la aplicación de políticas, y por último, las formas de gestión más adecuadas.

El nuevo enfoque de la política ambiental en la CAPV propone como requisito imprescindible que dicha política sea evaluable y medible, y más en un proceso a largo plazo donde la duración de los ciclos económicos y ambientales presentan distintos periodos para apreciar evoluciones en los datos sobre las relaciones causa efecto. El sistema de información requerido, además de profundizar en el conocimiento sobre la interacción de los

ren eraginkortasuna, ingurugiroaren integrazioa sektoreka-ko beste politika batzuetan eta, azkenik, euskal gizarteak jasangarritasunaren bidean emandako aurrerapausoak. EB osoan erreproduzitu eta konpara daitekeen adierazle-sistema baten bitartez ikusi ahal izango dugu Ingurugiro Sistemaren bilakaera.

Nazioarteko esperientzietatik ikasten saiatzen da, hortaz, euskal ingurugiro-politika berria, eta Administrazioaren (ingurugiro-eskumen alor guztien) neurri-sorta hutsa baino askoz gehiago izan nahi luke. Erakunde bakar baten esku-men-ikuspegi eta ahalbideek ezin diote aurre egin desafio horri, hain da-eta handia. Aukera eta ekimen-multzo zabal- la eskatzen ditu, administrazioen arteko (EAE bertako eta nazioarteko) koordinazio-lan sendoan eta euskal gizartearen sektore eta eragileen esku-hartzean oinarrituz.

procesos ambientales tendrá que medir la eficacia del gasto público, el grado de integración del medio ambiente en otras políticas sectoriales y el grado de avance hacia la sostenibilidad en la sociedad vasca. Un sistema de indicadores que sea reproducible y comparable dentro de la UE nos permitirá ir conociendo la evolución del Sistema Ambiental.

La nueva política ambiental vasca intenta, por lo tanto, aprender de las experiencias internacionales y en este sentido pretende ser mucho más que un simple conjunto de medidas de la Administración en sus diferentes niveles de competencia medioambiental. La magnitud del reto no puede ser asumida desde la óptica competencial y capacidad de un único organismo. Requiere e implica un amplio panel de posibilidades y actuaciones concretas basadas en un importante esfuerzo de coordinación entre administraciones – de la propia CAPV e internacionales – y la implicación de todos los sectores y agentes de la sociedad vasca.

Diagnostikoa

Ingurugiroa Euskal Herrian

El medio ambiente en el País Vasco

Diagnóstico

EAEko Ingurugiroko Agiri Estrategikoak (2000)¹ orain arte EAEn egindako ingurugiro-politika aldatu beharra zegoela zioen; eta Ingurugiro Sistemak egiteko eta ulertzeko moduan eta Europako ingurugiroan arazoei aurre egiteko moduan izandako aldaketetara egokitu behar zuela. Euskal Autonomia Erkiderako ingurugiro-politika berria ezartzeko garaia zela esanez amaitzen zen.

Ingurugiro-politika berria diseinatzeko eskema eta prozedura ere zehazten ziren, hori egituratuko zuten elementu nagusiak ere aipatuz. Identifikatutako lehen urratsa EAEko Ingurugiro Sistemari buruzko Diagnostikoa egin beharra zen, politika berri hori edukiz betetzeko jarduerak diseinatzeko abiapuntu izango zena.

Diagnostiko honen helburu bakarra ez da oraingo egoera deskribatzea izango; aitzitik, EAEko Ingurugiro Sistema zein gakoren inguruan mugitzen den eta jarduera-politika berri horrek arrakasta izan dezan kontuan izan beharreko alderdiak zeintzuk diren ere aurkitu behar ditu.

Beraz Diagnostiko honek ingurugiro-politika berriaren gakoak identifikatu behar ditu:

- Gizarte osoaren eskaerak eta euskal gizarteak eskatzen duen bizi-kalitatearen maila;
- Lehentasunezko ingurugiro-gaiak;
- Ingurugiro-politika berri hori hedatzea oztopatu edo baldintza dezaketen elementuak eta gainditu beharreko ahuleziak;
- Azkenik, aipatu ingurugiro-politika eraikitzeke erabil daitezkeen kudeaketa-lerro eta -moduak.

Eta zehazten den azken erronka, EAEko Ingurugiro Sistema, hori osatzen duten alderdi guztien arteko oreka dinamikoa lortu ahal izateko, osotasun gisa nola kudea daitekeen adieraztea da. Bestalde, ingurugiro-politikak Autonomia Erkidego hau zein ingurunetan kokatuta dagoen ere kontuan hartu behar dela esaten da eta, beraz, Europako esparrua hartu da erreferentzia gisa, antzak eta desberdintasunak identifikatuz.

El Documento Estratégico Ambiental de la CAPV (2000)¹ apuntaba la necesidad de que la política ambiental desarrollada hasta el presente en la CAPV debía adaptarse a los cambios que se están experimentando tanto en la concepción y entendimiento de los Sistemas Ambientales como en la forma en que se abordan los diferentes problemas del medio ambiente europeo. Se concluía diciendo que era el momento de establecer una nueva política ambiental para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se definía también el esquema y procedimiento para diseñar la nueva política ambiental, recogiendo los principales elementos que la van a configurar. El primer paso identificado era la necesidad de un Diagnóstico sobre el Sistema Ambiental de la CAPV que fuese el punto de partida para diseñar unas actuaciones que llenen de contenido a esa nueva política.

No es objetivo de este Diagnóstico describir únicamente la situación actual, sino encontrar las claves por las que se mueve el Sistema Ambiental de la CAPV y los aspectos a tener en cuenta para el éxito en esa nueva política de actuaciones.

Por lo tanto, este Diagnóstico trata de identificar las claves de la nueva política ambiental:

- Las demandas del colectivo social y el nivel de calidad de vida exigido por la sociedad vasca;
- Los temas ambientales prioritarios;
- Los elementos que pueden frenar o condicionar el despliegue de esa nueva política ambiental, así como las vulnerabilidades a superar;
- Finalmente, las líneas y formas de gestión sobre las que se pueda construir dicha política ambiental

El objetivo final que se establece es indicar la forma en que se puede gestionar el Sistema Ambiental de la CAPV como un todo, para lograr un equilibrio dinámico entre las partes que lo componen. Asimismo, se ha considerado que una política ambiental debe tener en cuenta el entorno en que está situada esta Comunidad Autónoma, y por tanto el análisis ha incorporado la referencia del marco europeo tratando de identificar las similitudes y diferencias.

¹ Ingurugiroko Esparru Programa serieko agiria

¹ Documento de la serie Programa Marco Ambiental

Aurkezten dugun Diagnostikoa hainbat eremutako adituetalde handiak hainbat ingurugiro-gairi buruz egindako hausnarketaren emaitza da. Etorkizunerako garrantzitsutzat jotzen diren gaiekiko lan-taldeen iritziak jasotzen ditu, kausa-eredu integralean oinarritutako analisiaren bidez jasota. Lortu den emaitzak, ikuspuntu sozial, ekonomiko, tekniko eta instituzionalek Euskal Ingurugiro Sistemaren egoera eta perspektibak nolakoak diren azaltzen ditu; alegia, analisi global eta koordinatutik, ingurune globalaren aldaketekin bat etorriko diren estrategia berriak martxan jarri ezean, oraingo egoerak nolako bilakaera izango duen esaten du.

EAEko INGURUGIROKO 2012 ESPARRU-PROGRAMAREN FASEAK

I. Fasea. Ingurugiro Sistemaren Diagnostikoa

II. Fasea. Jasangarritasunerako estrategia

III. Fasea. Ekintza-plana

El Diagnóstico que se presenta es el resultado de la reflexión de un amplio colectivo de personas expertas en diversos campos y en torno a diversos temas ambientales. Recoge las opiniones de los diferentes grupos de trabajo, sobre aquello que se considera importante para el futuro mediante un análisis basado en un modelo causal integral. El resultado obtenido reconoce desde los puntos de vista social, económico, técnico e institucional cuáles son la situación y perspectivas del Sistema Ambiental Vasco, es decir, plantea desde un análisis global y coordinado cómo puede evolucionar la situación presente si no se adoptan nuevas estrategias acordes con los cambios del entorno global.

FASES DEL PROGRAMA MARCO AMBIENTAL CAPV 2012

Fase I. Diagnóstico del Sistema Ambiental

Fase II. Estrategia de Sostenibilidad

Fase III. Plan de Acción

2. EAEko makroingurunea

El macroentorno de la CAPV

Ingurugiro-arazo asko muga administratibo eta fisikoez gaindikoak dira eta osorik heldu behar zaie. Horregatik, lurralde bateko ingurugiro-arloko jarduerak bere makroingurune elkarreagin geografikoak kontuan izan behar dituzte –eta horietara egokitu behar dira–. Europako makroingurunea da Euskal Autonomia Erkidegoaren etorkizuneko perspektibak eta aukerak aztertzeko eta ingurugiro-arloko irizpide bateratuak zenbateraino erabili behar diren eta aplikatu daitezkeen jakiteko nahitaezko erreferentzia.

2.1 Kokapen geografikoa

EAE Iberiar penintsularen iparraldean dago, Bizkaiko golkoaren eta Ebro ibaiaren haranaren artean eta kontinenteko muga natural baten (Pirinioen) ondoan. Halaber, Iberiar penintsularen eta Europako erdialdeko lautada handiaren arteko lotunea da. 295 km-ko itsasertza eta hainbat portu ditu: bi garrantzitsu merkataritzakoak (Bilbo eta Pasaia) eta beste txikiago batzuk arrantzan espezializatuak.

Geografikoki, eta Europako gune ekonomikoen artikulazioaren ikuspuntutik ere bai, EAE "Arku Atlantiko" deituriko eremuko da. Parte txiki bat –hegoaldekoa– besterik ez da Ebro haranekoa. Horrek ezaugarri geografiko eta ekonomiko bereziak ditu, Mediterraneoko eskualdekoen antz handiagoak.

	EAE	EB 15
Azalera	7.235 km ²	% 0,22
Biztanleak (2000)	2.099.829	% 0,57
Dentsitatea (bizt./km ²)	291	117
Eremu urbanizatuak	~ guztiaren% 4	guztiaren% 4,5
Natur Parke eta Erreserbak	~ guztiaren% 11	guztiaren% 4,8

Iturria: Euroregion en cifras. Eurostat 2000 eta beste zenbait

Muchos de los problemas ambientales trascienden fronteras administrativas y físicas requiriendo tratamientos globales. Ello implica que las actuaciones en materia ambiental en un determinado territorio deben tener en cuenta –y adaptarse– a las situaciones de interrelación geográfica que se dan en su macroentorno. El macroentorno europeo es la referencia obligada a la hora de analizar las perspectivas y posibilidades de la Comunidad Autónoma del País Vasco a futuro y en qué aspectos se deben seguir y se pueden aplicar los criterios comunes en materia ambiental.

2.1 Contexto geográfico

Situada al norte de la Península Ibérica, entre el Golfo de Bizkaia-Gascuña y el Valle del Ebro, la CAPV se sitúa junto a una de las fronteras naturales (los Pirineos) del continente y sirve de nexo entre la Península Ibérica y la Gran Llanura Centroeuropea. Dispone de un litoral de unos 295 km con varios puertos: dos comerciales importantes (Bilbao y Pasaia) y otros más pequeños especializados en la pesca.

Tanto en lo geográfico como en la articulación de los espacios económicos europeos, la CAPV forma parte del llamado "Arco Atlántico". Sólo una pequeña parte – la del sur – se inscribe en el Valle del Ebro con características geográficas y económicas diferenciadas, próximas a las de las regiones mediterráneas

	CAPV	UE 15
Superficie	7.235 km ²	0,22 %
Habitantes (2000)	2.099.829	0,57%
Densidad (hab./km ²)	291	117
Zonas Urbanizadas	~4% s/total	4,5% s/total
Parques y Reservas Naturales	11% s/total	4,8% s/total

Fuente: Euroregion en cifras. Eurostat 2000 y otras

Nahiz eta EAE Europan oso lurralde txikia izan, berezko ezaugarriak baditu:

- *Populazio-dentsitate handia, hiriguneetan kontzentratua, "haran-hondoen" saturazioa eraginez,*

- *Orografia haranen arteko komunikazioa zaildu egiten du, nahiz eta horri esker gutxi antropizatutako guneak gorde diren,*

- *Kokapen geografikoari esker, EAE Pirinioen eta Kantabriar mendikatearen artean dagoen erreserba biogeografikoa da eta, horregatik, bi gune horien arteko lotura ekologikoak zaintzea gai estrategikoa da Europako bi mendigune garrantzitsu horietako jarraitasun ekologikoari eusteko.*

- *Europako komunikazio-ardatz garrantzitsuetako batean dago, Atlantikoko Ardatzaren eta Mediterraneoko Ardatzaren arteko "errotula" posizioan. Hori bermatzeko, garraiorako oso azpiegitura-sare trinkoa dago eta horregatik da "bide-km/km²." en batezbestekoa Europako Batasunekoaren gainekoa.*

2.2 Testuinguru sozioekonomikoa

Europako ekonomia eta gizartea globalizazio-prozesuetan daude murgilduta. Horien barruan, EAerentzat ezezagunak ez diren eta bere ingurugiro-sisteman eragina duten itzulerarik gabeko mugimendu batzuk antzematen dira. Hauek dira nagusiak:

EKONOMIAREN TERTZIARIZAZIO-PROZESUAK:

Herri garatuetako ekonomien garapenaren ezaugarri nagusietako bat, EAEkoa barne, zerbitzuen sektorea egitura ekonomikoan hartuz doan garrantzia da. Horrela zerbitzuen sektorea, jarduera ekonomikoaren ikuspegitik zein enpleguaren ikuspegitik, ekarpen handieneko jarduera bihurtzen da.

Hamabosten Europako Batasunean, zerbitzuen sektoreak Balio Erantsi Gordinaren (BEG)% 65,3 hartzen zuen 1997.ean, eta ekonomiaren enplegu osoaren % 64. Hau da, hirugarren sektoreko jarduerak argi eta garbi nagusitzen

A pesar de que la CAPV en el espacio europeo aparece como un territorio muy pequeño, presenta características propias:

- Una elevada densidad de población, concentrada en núcleos urbanos que saturan los "fondos de valle",

- Una orografía que complica la comunicación entre sus valles aunque ha permitido salvaguardar espacios poco antropizados,

- La situación geográfica hace de la CAPV una reserva biogeográfica, a caballo entre los Pirineos y la Cordillera Cantábrica, de manera que la preservación de las conexiones ecológicas entre ambos espacios constituye una cuestión estratégica para el mantenimiento de la continuidad ecológica de estos dos importantes macizos europeos.

- La inserción en uno de los principales ejes de comunicación europeos, en una posición de "rótula" entre el Eje Atlántico y el Eje Mediterráneo. Ello conlleva la existencia de una red de infraestructuras viarias muy densa, estando por encima de la media comunitaria en cuanto a "km de vías/km²." se refiere.

2.2 Contexto socioeconómico

Dentro de los procesos de globalización, en los que la economía y la sociedad europeas están inmersas, se detectan varios movimientos irreversibles que no son ajenos a la CAPV y que influyen en su sistema ambiental. Los principales son:

LOS PROCESOS DE TERCIALIZACIÓN ECONÓMICA

Uno de los aspectos principales que caracteriza la evolución de las economías de los países desarrollados, incluida la CAPV, es el importante peso que de forma progresiva va alcanzando el sector servicios dentro de la estructura económica. De esta manera, el sector servicios se convierte en la actividad que mayor aportación representa tanto desde el punto de vista de la actividad económica como desde el punto de vista del empleo.

En la UE15, el sector servicios en 1997 representaba el 65,3% del Valor Añadido Bruto (VAB) y el 64% del empleo total de la economía, de manera que las actividades terciarias dominaban ya con claridad la estructura

ziren produkzio-egituran. Horrekin batera honakoa dator: jarduera ekonomikoaren etengabeko dibertsifikazioa, produkzio-prozesuen desintegrazioa, erregioetako ekonomia nagusien gero eta espezializazio handiagoa eta enpresa-tamaina txikiagotzea, bai ohizko jardueretan eta bai sortzen ari diren jarduera berri espezializatueta.

Industria ondorengo gizarte hauetan aldatuz doaz ingurugiroaren gainean presioa egiteko moduak, eta ikusi egiten zen poluziotik –industriarekin lotutakotik– nagusiki kontsumoko ereduaren oinarritutako ingurugiro-narriadurara pasatu da.

“INFORMAZIO GIZARTEA” DEITURIKOAREN GARAPENA

Zalantzarik ez dago hurrengo urteetan garapenik handiena Informazio Gizartea deitutakoaren sendotzetik etorriko dela. Telekomunikazio- eta informatika-teknologiaren (TIK) garapenak Ingurugiro Sistemaren erlazioak hobeto ezagutzeko balioko du eta baita ingurugiroari buruzko informaziora iristea eta hiritarrek ingurugiroan eragina duten erabakietan parte-hartzea indartzeko ere. Europako Batasunaren alorrean dagoeneko martxan daude horrelako teknologiaren bitartez zerbitzu komunitarioen irismen- eta estaldura-mailak, baita ingurugirokoak ere, handitzeko ildo estrategikoak.

TEKNOLOGIAREN ZEREGIN BERRIA

Egiaztatuta dago teknologia oker erabiltzea izan dela, neurri handi batean, planetako ingurugiroaren narriaduraren eragilea. Baina horren aurrean, gaur egungo garapen teknologikoaren mailari esker, ordezkatzeko alternatibak eta ingurunearekin “atseginagoak” diren teknologiak sartzea pentsa daiteke lehen aldiz. Populazioaren zein ekonomiaren gaur egungo hazkunde-itxaropenak mantentzeko, ingurugiroan egiten den egungo presioa ere mantenduz (zama ekologikoa), produkzio-sistemaren egungo eraginkortasun-maila (ekoeraginkortasuna) bider 20 (20 Faktorea) egin beharko litzatekeela uste da. Gaur egungo teknologiarekin ekoeraginkortasunean 4 faktorea lortu ahal izango litzateke. Beraz, beharrezkoa eta ezinbestekoa da beste planteamendu batzuk egitea, bestela ingurugiroaren narriadurak aurrera jarraituko du eta (Garapen Jasanezina).

Horrela, etengabe eta modu iraunkorrean produkzio garbia, produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, prozesuen funtzio berritzailea, etab. erabiliz, hau da, “berrikuntza-sistemaren garapena”ren barruan sartzen dena erabiltzea, lehen urrats saihestezina emango litzateke produkzio-sistemaren ekoera-

productiva. Ello viene acompañado de una continua diversificación de las actividades económicas, de una desintegración de los procesos productivos, de una creciente especialización de las principales economías regionales, y de una disminución del tamaño empresarial tanto en las actividades tradicionales como en las nuevas actividades emergentes especializadas.

En estas sociedades post-industriales se están cambiando las formas de presionar sobre el medio ambiente pasando de una contaminación visualmente perceptible –asociada a la industria– a un deterioro ambiental basado principalmente en el modelo de consumo.

EL DESARROLLO DE LA DENOMINADA “SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN”

Es un hecho indudable que el desarrollo más importante en los próximos años vendrá dado por la consolidación de la llamada Sociedad de la Información. El desarrollo de tecnologías de telecomunicaciones e informática (TICs) permitirá mejorar el conocimiento de las interrelaciones del Sistema Ambiental, así como potenciar el acceso a la información ambiental y la participación por parte de la ciudadanía en la toma de decisiones con repercusiones ambientales. En el ámbito de la UE hay ya líneas estratégicas para ampliar el grado de alcance y de cobertura mediante estas tecnologías de los servicios comunitarios, incluidos los ambientales.

EL NUEVO PAPEL DE LA TECNOLOGÍA

Frente a la constatación de cómo el mal uso de la tecnología ha sido, en gran parte, el causante del deterioro ambiental planetario, el actual nivel de desarrollo tecnológico permite por vez primera plantear alternativas de sustitución e incorporar tecnologías más “amigables” con el entorno. Para mantener las actuales expectativas de crecimiento tanto poblacional como económico, manteniendo la actual presión sobre el medio ambiente (carga ecológica), algunos autores estiman que se debería llegar a multiplicar por 20 (Factor 20) el actual nivel de eficiencia del sistema productivo (ecoeficiencia). Con la tecnología actual, se podría alcanzar un factor en ecoeficiencia de “4” por lo que es necesario e imprescindible otro tipo de planteamientos, de lo contrario continuaríamos con el deterioro medioambiental (Desarrollo Insostenible).

Así, la adopción continuada y permanente de una producción más limpia, el ecodiseño de productos y servicios, etc., es decir, lo que se engloba como “desarrollo del sistema de innovación”, es un primer paso ineludible para avanzar hacia una mayor ecoeficiencia en el sistema

ginkortasun handiagorantz. Ondorioz, aldagai teknologikoren I+Gn gehiago gastatzeko premiaren ideia (bere zentzu zabalenean, eta bereziki ingurugiroaren alorreko garapen teknologikoarekin duen erlazioa kontuan hartuz) sendotzen ari da herri garatueta.

JARDUERA EKONOMIKOAK NAZIOARTEKOAK GERO ETA GEHIAGO

Jarduera ekonomikoak nazioarteko bihurtzeko joera gero eta handiagoaren ondorio nagusia, ingurugiroari dagokionez, presioen zati handi bat garapen bidean dauden herrietara eramatea da. Herri horietan ingurugiroarekiko eskakizun gutxiago dagoelako gertatzen da hori eta, ondorioz, bertara eramaten dira industria poluitzaileenak. Gainera, azken urteotan herri garatueta baliabide naturalen gero eta fluxu handiagoa dagoela antzeman da.

Euskal enpresa askok nazioarteko bihurtzearen bitartez egindako hedapenak, eta garapen bidean herrietatik datozen materia eta energien menpe egoteak, beharrezko bihurtzen dute gai eta presio zehatz batzuetarako mundu mailako gunea aurreikustea. Hori dela eta, ingurugiro-presioen analisisan EAEren esparruan sortutakoak eta nazioarteko fluxuetatik eratorritakoak hartu beharko dira kontuan. Horrelako analisi globalak egiten hasi berriak dira EAEn ("Huella Ecológica" eta "TMR, Total de Materiales Requeridos").

INGURUGIRO-GAIETAN GASTATZEA ETA INBERTITZEA ETA ERRENTA ETA ENPLEGUA SORTZEA LOTUTA DAUDELA EGIAZTATU DA

La Estrategia Comunitaria sobre Biodiversidad cumple los requisitos del Convenio sobre diversidad biológica en relación con la Comunidad Europea, y tiene como objetivo complementar las iniciativas que se emprendan en los Estados miembros y proporcionar planes de actuación para integrar este aspecto en los demás programas y políticas. La Agenda 2000 de la UE ofrece posibilidades para considerar las nuevas interrelaciones entre la biodiversidad y las zonas rurales: las medidas agroambientales, los fondos estructurales, las zonas menos favorecidas y las prácticas de forestación. En los esfuerzos por conseguir una estrategia forestal europea se fijan objetivos más sostenibles para la gestión de los bosques. Hay también varias iniciativas de la UE relativas a la conservación de los recursos genéticos.

La diversidad biológica resulta perjudicada por ejemplo por: la canalización de los ríos y la destrucción de sus orillas, la agricultura intensiva y el empleo de plaguicidas, la creciente uniformidad del paisaje agrícola (desaparición de setos y monte bajo) y el drenaje de marismas y humedales. Además, los usos del suelo pueden alterar la biodiversidad, e incluso provocar su pérdida, con resultados como la fragmentación de hábitats naturales y seminaturales, lo cual supone una amenaza para la viabilidad de las especies y el funcionamiento de los ecosistemas dentro de un proceso complejo. La intensificación de la agricultura es el factor de mayor impacto negativo. El abandono de terrenos y prácticas agrarias, pueden ser negativos en las antiguas zonas de laboreo extensivo, y positivos en las áreas donde se practicara previamente una agricultura intensiva.

Landaketa monoespezifikoen eta bertako espezien antzeko adina duten espezie exotikoen baso-landaketek ez dakarte aniztasun biologikorik. Basoak sartutako azalera poliki-poliki gora egingo duela aurreikusten da, baina baso zaharrrak eta bertako zuhaitzen basoak murriztu egingo dira gune askotan.

Epe luzera, Europako ekosistemetatik kanpoko espezieak nahita edo halabeharrez sartzeak gero eta arrisku handiagoa ekarriko du. Baliteke hurrengo hamarkadan bertako espezie eta bertakoak ez diren espezieen arteko transferentzia biologikoa, higadura genetikoa eta espezie-populazioen isolamendua areagotzea.

EAEren barruan hiritarrek bioniztasunaren garrantzia behar bezala ez dutela ezagutzen uste da eta horregatik da beharrezkoa garrantzi horren berri egoki ematen duen eginkizuna azalduz. Bioaniztasunak gizarterako duen errentagarritasuna adieraztea nahi da.

Bioaniztasuna hiru ikuspegi ezberdinetatik azter daiteke: espazioak, espezieak eta genetika.

ESPAZIOEN ANIZTASUNA

Europako lurraldean habitat naturalak eta flora eta fauna basatiak kontserbatuz bioaniztasuna bermatzeko helburuarekin, Kontserbazio Berezia behar duten Guneen Sare Ekologikoa (Natura Sarea 2000) sortu zen. Sare hau eragingarriagoa izango da hurrengo hamarkadan, Europako Batasunean izadia kontserbatzeko lurraldeak % 10eraino igoz eta espezie-populazio osoak babesteko neurriak hartuz.

EAEk hainbat konpromiso hartu du Natura Sarea 2000 honi dagokionez, eta hemendik aurrera garatuko diren plan eta programetan integratu beharko dira, hala nola EAEren Landa Garapen Jasangarriaren 2000-2006 Planean.

EAEko Babestutako Gune Naturalen Sarea, Euskal Herriko Izadia Kontserbatzeko 16/1994 Legean zehaztutako baldintza eta eskakizunetako batzuk betetzen dituzten tokiez osatuta dago, eta bertan ezartzen diren babeserako estatutuetakoren batek babesten dituzte. Gutxi gorabehera, babestutako lurraldea % 15 da. Horri, behar diren korridore ekologikoen azalera gehitzen bazaio, babestutako lurraldea lurralde osoaren % 25-30 izango litzateke.

Las prácticas forestales que consisten en plantaciones monoespecíficas y de especies exóticas de edad similar a las autóctonas no conducen a la diversidad biológica. Se prevé que aumente con lentitud la superficie forestada, si bien los bosques antiguos y los de especies arbóreas autóctonas seguirán reduciéndose en muchas zonas.

A largo plazo, la introducción, voluntaria o accidental, de especies foráneas para los ecosistemas europeos, supone un riesgo que va en aumento. Es posible que, durante la década que viene, se intensifiquen la transferencia genética entre especies no autóctonas y las especies autóctonas, la erosión genética y el aislamiento de poblaciones de especies.

En el ámbito de la CAPV se considera que la ciudadanía no tiene un conocimiento adecuado de la importancia de la biodiversidad, por lo que se hace patente la necesidad de difundirla adecuadamente, explicando la función que cumple. Se trata de poner de manifiesto la rentabilidad social del mantenimiento de la biodiversidad.

La biodiversidad puede ser analizada desde tres niveles: espacios, especies y genética.

DIVERSIDAD DE ESPACIOS

Con el objetivo de garantizar la biodiversidad mediante la conservación de los hábitats naturales y la flora y fauna silvestres en el territorio europeo se creó la Red Ecológica de Zonas de Especial Conservación (Red Natura 2000). Esta Red será más operativa durante la próxima década, con aumentos de hasta el 10% del territorio de la UE destinado a la conservación de la naturaleza y con medidas para proteger a poblaciones enteras de especies.

Existen una serie de compromisos adquiridos por la CAPV con respecto a la Red Natura 2000, que deberán ser integrados en los distintos planes y programas a desarrollar como el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la CAPV, 2000-2006.

La Red de Espacios Naturales Protegidos de la CAPV está conformada por aquellos lugares que, cumpliendo alguno de los objetivos y requisitos que se detallan en la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, están amparados por alguno de los estatutos de protección que en ella se determinan. Existe, aproximadamente, un 15% de la superficie protegida, lo que, sumado a la extensión de los corredores ecológicos necesarios podría suponer una extensión de hasta un 25-30% de superficie protegida.

Eusko Jaurlaritzako 1997ko abenduaren 23ko Kontseilu Erabakiaren arabera, **Natura 2000 Sarean** sartzeko 25 gune aurreaugaratu dira:

Según el Acuerdo de Consejo del Gobierno Vasco de 23 de diciembre de 1.997, se han preseleccionado 25 espacios para entrar a formar parte de la **Red Natura 2000**:

Izena / Denominación	
1 Urdaibaiko artadi kantauriarak / Encinares cantábricos de Urdaibai	16 Ullia
2 Urdaibaiko kostaldea eta padurak / Zonas litorales y marismas de Urdaibai	17 Arno
3 Valderejoko Natur Parkea / Parque Natural de Valderejo**	18 Izarraitz
4 Gorbeialoko Natur Parkea / Parque Natural de Gorbeia**	19 Hernio-Gatzume
5 Urkiolako Natur Parkea / Parque Natural de Urkiola**	20 Arreo - Caicedo Yuso-ko aintzira / Lago de Arreo - Caicedo Yuso
6 Izkiko Natur Parkea / Parque Natural de Izki**	21 Ullibarriko urtegia / Embalse de Ullibarri
7 Aiako Harriko Natur Parkea / Parque Natural de Aiako Harria**	22 Aizkorri*
8 Aralarreko Natur Parkea / Parque Natural de Aralar**	23 Entzia*
9 Pagoetako Natur Parkea / Parque Natural de Pagoeta**	24 Ordunte
10 Biasteriko urmaletako Biotopoa / Biotopo de las Lagunas de Laguardia**	25 Jaizkibel
11 Leitzarano ibai Biotopoa / Biotopo del Río Leizaran**	
12 Inurritzako Biotopo Babestua / Biotopo Protegido de Inurritza**	
13 Gastelugatxeko Biotopoa / Biotopo de San Juan de Gastelugatxe**	
14 Ranero - Jorrios mendiak / Montes de Ranero - Los Jorrios*	
15 Bidasoako terrazak eta padurak / Terrazas y marismas del Bidasoa	

* Natur Gune Babestuen Sarean sartzeko proposatutako guneak / Espacios propuestos para su inclusión próxima en la Red de Espacios Naturales Protegidos
 **NGB izendatutako gunea / Espacio ya declarado como ENP

Babestutako Gune Naturalen Sarearen eginkizuna Euskal Herriko ekosistema eta eraketa natural nagusiak ordezkatzea da alde batetik, eta, bestetik, kudeaketa-sistema orokorrak koordinatzea. Era berean, Parke Natural eta Babestutako Biotopoez gain, badago gune bat, Urdaibai, UNESCOk 1984.ean Biosferaren Erreserba izendatu zuena.

Oro har, mendiguneetako espazioak babestera jo da, giza garapenak gutxi ukitutakoak, eta beste espazio-mota batzuek babestea falta da, Urdaibaiko Erreserba izan ezik. Aurretik dugun erroka hezeguneak edo itsasertzeko ekosistemak babestea da. Hezeguneetako osagai biotiko eta abiotikoen aberastasun eta aniztasun handia azpimarratu behar dira, horri esker planetako ekosistema emankorrenetakoak baitira. Habitat-mota asko dute eta zeregin garrantzitsua dute bioaniztasunaren kontserbazioan eta garapen ekonomikoan. Osagai biotiko eta abiotikoen aniztasun hori argi eta garbi kus daiteke Urdaibaiko hezegunean eta Butroi, Txingudi, Barbadun, Lea, Oria, Urola, Inurritza, Deba eta Artibai itsasadarrekoetan. Euskal Autonomia Erkidegoko Gune Hezeetako Lurralde Plan Sektorialak, gaur egun tramitatzen ari denak, gune hauen guztien tratamendu orokorra egiten du eta euskal hezeguneen inbentarioa eta karakterizazioa, definitutako tipologia bakoitza babesteko arau orokorrak eta inbentarioan sartu diren guneetan aukeratutako balioetsuenentzako erabilpenen zonifikazioa eta antolaketa zehaztua ere baditu.

La función de la Red de Espacios Naturales Protegidos es, por un lado, representar los principales ecosistemas y formaciones naturales del País Vasco y, por otro, coordinar los sistemas generales de gestión. Así mismo, además de los Parques Naturales y los Biotopos Protegidos existe un área, Urdaibai, que fue declarada Reserva de la Biosfera en 1984 por la UNESCO.

En general, se ha tendido a proteger espacios de zonas montañosas, poco afectadas por el desarrollo humano, a excepción de la reserva de Urdaibai. El reto que se nos presenta es la protección de otros tipos de espacios, como los humedales o los ecosistemas costeros, dada la gran riqueza y diversidad de los componentes bióticos y abióticos de los humedales que hace que se encuentren entre los ecosistemas más productivos del planeta. Poseen una gran variedad de hábitats y juegan un importante papel en la conservación de la biodiversidad y en el desarrollo económico. Esta diversidad de componentes bióticos y abióticos queda patente en los humedales de Urdaibai, y de las rías de Butrón, Txingudi, Barbadun, Lea, Oria, Urola, Inurritza, Deba y Artibai. El Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la Comunidad Autónoma del País Vasco -actualmente en tramitación- hace un tratamiento global de estas zonas e incluye un inventario y caracterización de los humedales vascos, unas directrices generales de protección para cada una de las diversas tipologías definidas y una zonificación y ordenación de usos particularizada para las que, de entre las áreas inventariadas, se han seleccionado como las más valiosas.

Etokizunean interesa duten espazio txikiak kudeatzeko estrategiak bultzatzeko aukerak aztertzen ari dira, baita bioaniztasunaren kudeaketa egokira iristeko asmoz babes-tutako espazioak lotzeko aukerak ere.

ESPEZIEEN ANIZTASUNA

Mehatxatutako espezieei buruzko ezagupenean eta kudeaketan aurrerapenak izan badira ere, oraindik ez dakigu ondo euskal lurraldean bizi diren espezieen kopurua.

Fauna eta Floran Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoa erregistro publikoa da, izaera administratiboa duena eta Euskal Herriko Izadia Kontserbatzeari buruzko 16/94 Legeak sortutakoa. Babeserako neurri bereziak eskatzen dituzten espezie, azpiespezie eta populazioez osatuta dago. Faunako 146 taxonek eta florako beste 136ek osatzen dute 2001.eko katalogoa. Katalogo honetan fauna edo florako espezie, azpiespezie edo populazio bat sartzen bada, Mehatxu Kategoría baten barruko sailkapena ematen zaio eta, horrekin batera, babeserako neurriak ezartzen dira eta bere Kudeaketa partikularrerako Plana idazten da. Horrelako Kudeaketa Planak daude Arabako Lurralde Historikoan uhalde-enararentzat eta hegoaldeko igelarentzat Gipuzkoako Lurralde Historikoan .

Oro har, arrazoi antropikoak direla, eta arriskuan dauden espezieak babesteko jarduteko premia ikusten da, eta arrazoi naturalen eragina jasan duten edo jasaten ari diren populazioetako partaideekin baliabide eta ahaleginetan ez gastatzen saiatzen da (adibidez, klima-aldaketaren eragina jasaten ari diren erreliktu-populazioak). Beraz, beharrezkoa da babeserako jarduketa eraginkorraren aukera ondo neurteza eta kasu bakoitzean aplikatu behar diren baliabideak kudeatzea (kudeaketa, ikerketa). Ildo honetan, bere babeserako/kontserbaziorako modu eraginkorrean lan egin badaitenke bakarrik sartuko dira espezieak katalogoetan, edota aparteko espezieak badira (bioaniztasunaren marketina).

Beharrezkoa dela ematen du, halaber, Lurralde Historiko guztietarako bioaniztasunaren babesari dagokionez helburu adostuak ezarriko dituen politika bat egotea, adibidez, espezie bat lurralde batean babestuta egotea eta beste batean ez egotea eragozteko.

Interesgarria litzateke bertako arraza etxetiarrak babestea, eta helburu hori betetzeko kudeaketa-planak idaztea aurreikusita dago. Ildo honetan azpimarratu beharra dago EAE-mailako ganadu-arrazen katalogoa badagoela.

A futuro se estudia la posibilidad de potenciar estrategias a nivel de gestión de pequeños espacios de interés, así como posibilitar la conexión entre espacios protegidos con el fin de llegar a una adecuada gestión de la biodiversidad.

DIVERSIDAD DE ESPECIES

Aunque se han producido avances en cuanto al conocimiento y gestión de las especies amenazadas, existe un gran desconocimiento del número de especies que habitan en el territorio vasco.

El Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y la Flora es un registro público, de carácter administrativo, creado por la Ley 16/94 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. Está integrado por las especies, subespecies o poblaciones cuya protección exige medidas específicas. En el año 2001 forman parte de él 146 taxones de fauna y 136 de flora. La inclusión en el Catálogo de una especie, subespecie o población de fauna o flora, conlleva su clasificación dentro de una Categoría de Amenaza, así como unas normas de protección y la redacción de un Plan para su Gestión en particular. También existen Planes de Gestión para el avión zapador en el Territorio Histórico de Álava y para la ranita meridional en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En general se plantea la necesidad de actuar para proteger las especies que están en peligro por causas antrópicas, evitando el gasto de recursos y esfuerzos en aquellas poblaciones cuyos efectivos estén o hayan sido afectadas por causas naturales (por ejemplo, poblaciones relictas sometidas a cambios climáticos). Se hace necesario, por tanto, sopesar la posibilidad de actuación efectiva para la protección y gestionar los recursos a aplicar en cada caso (gestión, investigación). En este sentido las especies deben incluirse en los catálogos si se puede trabajar de forma efectiva para su protección-conservación, o bien si son especies "bandera" (marketing de la biodiversidad).

También parece necesaria la existencia de una política que marque unos objetivos consensuados en cuanto a la protección de la biodiversidad para todos los Territorios Históricos, de manera que se evite que una especie esté protegida en uno de ellos pero no en los demás.

Resulta interesante la protección de las razas domésticas autóctonas, para lo que está prevista la redacción de planes de gestión para cumplir dicho fin. En este sentido cabe destacar la existencia de un catálogo de razas ganaderas a nivel de la CAPV.

ANIZTASUN GENETIKOA

Genetikoki aldatutako organismoen (GAO) arazoak geldirik jarraitzen du ziurgabetasun zientifikoaren eta eztabaida politikoaren eraginez. Bioteknologia modernoak berrikuntzarako aukerak eskaintzen ditu eta Europaren nazioarteko lehiakortasuna bultzatzen dezake. Baina Europa osoko iritzirik publikoa eszeptikoa da genetikoki aldatutako elikagaiei buruz, eta adostasuna erabatekoa da bere etiketatze, kontsulta publiko eta araudi eta kontrol zehatzagoaren inguruan. Elikaduraren segurtasunaz gain, kezka eragiten dute bertako espezieetan dagoen interferentzia genetikoa. Europako Batasunak tresna juridikoak ditu GAOak askatzea (jakinaren gainekoa edo nahi gabekoa) eta elikaduran erabiltzeko segurtasuna arautzeko. Europako herri gehienetan Europako Batasunak ezarritako arauak jarraitu zaie edo indarrean dauden legeak egokitu dira.

Genetikoki aldatutako organismoetatik eratorritako produktuen komertzializazioa bideratzeko baimenak urte bat edo bi behar izaten ditu gutxienez Europako Batasunean, eta orain arte ez da bat ere aho batez onartu. Europako Batzordeak arriskuaren kontrol-estrategia zabalatzeko eta zeharkako eraginak jasoko zituen legeria berrirako proposamenak eman zituen argitaratuta 1996. urtean. Proposamen horiek, ingurugiroan genetikoki aldatutako organismoen nahitako askatzeari buruzko 2001/18/CE Arteztarautan gauzatu ziren. EAren esparruan, mugatutako erabilpen-eragiketarik ari dira burutzen; adibidez, erremolatxa-haziarekin. Heziketa-eragiketarik, ikerketakoak eta bilakaerakoak ere ari dira burutzen.

6.5.2 Paisaia

Gaur egun paisaia gizartearen eskaerei erantzuteko kontserbatu eta zaindu egin behar den baliabide eta ondasun kultural gisa definitzen da. Gizakia, paisaia bera osatzen duten elementuetako bat izan arren, paisaia hori pixkanaka aldatzen hasi zen, eta horren ondorioz, paisaia naturala erabat gizatiar bihurtu da (adibidez, hiri handietan). Paisaia naturalak eta gizatiartutakoak osagarriak izan beharko lukete, bien artean oreka lortuz.

Gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen hiriko paisaia, hiri eta herrien barruan (kasu honetan ondasun kulturekin zerikusia du), zein kanpoaldean, hirigune eta inguruko landaguneen artean. Kanpoaldeetan espazio batetik besterako igarotzeak paisaia naturalean oso gutxitan integratuta dauden etxebizitza eta eraikinak eraikitzeke presioekin egiten du topo.

DIVERSIDAD GENÉTICA

El problema de los organismos modificados genéticamente (OMG) sigue paralizado por la incertidumbre científica y la controversia política. La moderna biotecnología ofrece posibilidades de innovación y puede estimular la competitividad de Europa en el marco internacional. Sin embargo, en toda Europa la opinión pública se muestra escéptica en relación con los alimentos modificados genéticamente, y el consenso es unánime respecto a su etiquetado, a la consulta pública y a una regulación y un control más exhaustivos. Aparte de la seguridad alimentaria, causan preocupación las interferencias genéticas con las especies autóctonas. La UE dispone de instrumentos jurídicos para regular la liberación de OMG (deliberada o accidental) y la seguridad de su uso alimentario. En la mayoría de los países europeos, se han seguido las directrices de la UE o se han adaptado las leyes existentes.

La autorización en la Unión Europea de la comercialización de productos derivados de OMG tarda como mínimo uno o dos años y hasta ahora ninguno se ha aprobado de forma unánime. La Comisión Europea hizo públicas en 1996 propuestas para una nueva legislación que ampliase la estrategia de control del riesgo e incluyese los efectos indirectos y que ha cristalizado en la Directiva 2001/18/CE sobre la liberación intencional en el medio ambiente de organismos modificados genéticamente. En el ámbito de la CAPV, se vienen realizando operaciones de utilización confinada, por ejemplo con semilla de remolacha, en operaciones de enseñanza, y de investigación y desarrollo.

6.5.2 Paisaje

En la actualidad el paisaje se define como recurso y patrimonio cultural que es necesario conservar y cuidar en respuesta a las demandas de la sociedad. El ser humano, a pesar de ser un elemento más de los que conforman el paisaje, comenzó a modificarlo paulatinamente, dando lugar a zonas en las que el paisaje natural ha sido transformado en un paisaje estrictamente humano (por ejemplo, las grandes ciudades). El paisaje natural y el humanizado deberían llegar a complementarse, alcanzando un equilibrio entre ambos.


También cobra importancia creciente el paisaje urbano tanto en el interior de las ciudades y pueblos –en este caso ligados a los bienes culturales– como en la periferia entre el núcleo urbano y las zonas rurales adyacentes. El tránsito de un espacio a otro en estas periferias está sometido a presiones para construcción de viviendas y edificaciones raramente integradas con el paisaje natural.

Lurralde Antolamenduko Arauak (1997), Euskal Baso Plana 1994-2030, EAEn Landako Garapen Jasangarrirako 2000-2006 Plana, Euskal Herriko Izadia Kontserbatzeko 16/1994 Legea, eta Ingurugiro Nekazaritzako Neurrien Euskal Herriko 1995-2017 Programan eta Lurralde Plan Sektorial eta Lurralde Plan Partzialak lantzean aztertzen da paisaia eta baliabide naturalak lurraldearen antolamenduan eta kudeaketan sartzea. Ildo honetan, azpimarratu beharra dago EAEn Paisaiaren Kartografia lantzea (1990) eta bere balorazio-azterketa (1993) aurrerapauso handia izan direla euskal paisaiak ezagutzeko. Kartografia horrekin, guztira 101 "unitate" edo "paisaia-mota" identifikatu ziren, hau da, gutxi gorabehera ezaugarri homogeneousak dituzten espazioak.

Hurbilketa kualitatibo gisa, ondorengo koadroan Euskal Herriko **bioaniztasunean** eragiten diren ingurugiro-presio nagusiak jasotzen dira:

La inclusión del paisaje en la ordenación y gestión del territorio y de los recursos naturales se aborda en documentos como las Directrices de Ordenación Territorial (1997), el Plan Forestal Vasco 1994-2030, el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la CAPV 2000-2006, la Ley 16/1994 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, el Programa de Medidas Agroambientales del País Vasco 1995-2017, así como en la elaboración de los Planes Territoriales Sectoriales y Planes Territoriales Parciales. En este sentido cabe destacar el avance que supone en cuanto al conocimiento de los paisajes vascos, la elaboración de la Cartografía del Paisaje de la CAPV (1990) y su estudio de valoración (1993). Con ello se identificaron un total de 101 "unidades" o "tipos de paisaje", espacios de características más o menos homogéneas.

A modo de aproximación cualitativa el siguiente cuadro recoge las principales presiones ambientales que se realiza sobre la **biodiversidad** del País Vasco:



DATU ESANGURATSUAK EAEn:

BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

- Babestutako azalera, azalera guztiaren % 15 da, eta ia % 30 izango litzateke korridore ekologikoak kontuan hartuz.
- Habitat aldaera handia dago Urdaibaik hezegunean eta Butroi, Txingudi, Barbadun, Lea, Oria, Urola, Inurritza, Deba eta Artibaiko itsasadarretan.
- Mehatxatutako espezieak: faunako 146 eta florako 136.
- Kartografiatutako 101 paisaia-unitate.
- Euskal hiritarrek ez dute behar bezala ezagutzen bioaniztasunak duen eginkizunaren garrantzia.

DATOS RELEVANTES EN LA CAPV:

BIODIVERSIDAD Y PAISAJE

- Superficie protegida un 15% que con los corredores ecológicos supondría casi un 30%.
- Gran variedad de hábitats en los humedales de Urdaibai, y de las rías de Butrón, Txingudi, Barbadún, Lea, Oria, Urola, Inurritza, Deba y Artibai.
- Especies amenazadas 146 de fauna y 136 de flora.
- 101 unidades de paisaje cartografiados.
- La ciudadanía vasca no tiene un conocimiento adecuado de la importancia de la función que cumple la biodiversidad.

Ondoren, AMSA Matrize gisa EAeko bioaniztasuna eta paisaia aztertzeko ezaugarri nagusiak azaltzen dira:

BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

AHULTASUNAK

- Hiritarrek eta Administrazio lokalak ez dute behar bezala baloratzen bioaniztasunak duen garrantzia.
- Tresna arau-emaileak aplikatzean bioaniztasuna mantentzea ez den beste helburu batzuei ematen zaie lehentasuna.
- Lurraren okupazio intentsiboa.
- Espazio natural handien gabezia.
- Administrazioen artean sakabanaketa eta koordinazio eza dago lehiakortasunari dagokionez, batez ere udal-administrazioaren mailan.
- Paisaiak asko degradatutako guneak eta berreskuratzen zailak ditu.

MEHATXUAK

- Ingurunearekiko erasokorrak diren nekazaritza-praktikak.
- Ibaien kanalizazioa eta ertzak suntsitzea.
- Nahita edo nahigabe kanpoko espezieak sartu dira, bere eraginaren balorazioa ondo jakin gabe.
- Korridore berdeak desagertu egin dira, urbazterretako eta mugetako basoak bereziki.
- Azpiegiturak egiteko lurzoruaren gero eta eskaera handiago dago.
- Azpiegitura linealak sortzeak hesi-efektua eragiten du.
- Paisaiari buruzko politikak ez aplikatuta, itzulerarik gabeko egoerak sortzen dira.
- Lurzoruaren eskatzen duen garapen-eredua, haranetako hondoak agortzearekin lotutakoa.

SENDOTASUNAK

- Landa-alorrean giza jardueren integrazio altua.
- EAEn baldintza da muga biogeografikoa izatea.
- Espazio-heterogeneotasuneko maila altua.
- Paisaia, lurraldearen eta baliabide naturalen egokitzapen eta kudeaketan sartu da.
- EAEn paisaiaren kartografia dago.

AUKERAK

- Natura 2000 Sarea dago eta EAek horren inguruko konpromisoak hartu ditu.
- Gizarteak gero eta gehiago ikusten ditu paisaia eta izadia bizi-kalitatea baloratzeko parametro gisa.
- Gero eta kezka handiagoa dago landa- eta hiri-paisaiak nartatzearen inguruan.
- Alor horietan, nazioarte mailako hitzarmenak daude, eta Europako Batasunaren Arteztarauen lege-garapena.
- Bioniztasuna eta paisaiaren kontserbazioa lurralde-antolaketa eta -kudeaketako politiketan integratu da. Integrazio hori babestutako espezieetatik kanpo egitea ere bultzatu nahi da.
- Landa-eremuan sektore turistikoa garatu da, paisaiaren baliabidearen kontserbazioarekin lotuz.

Iturria: Aditu Taldeak egindakoa.

A continuación se señalan, en forma de Matriz DAFO, los factores más significativos de análisis en la biodiversidad y el paisaje para la CAPV:

BIODIVERSIDAD Y PAISAJE

DEBILIDADES

- Insuficiente valoración ciudadana y de la Administración local de la importancia de la biodiversidad.
- En la aplicación de instrumentos normativos se priorizan otros objetivos diferentes a la conservación de la biodiversidad.
- Ocupación intensiva del suelo.
- Escasez de grandes espacios naturales.
- Dispersión competencial y descoordinación entre las administraciones, sobre todo a medida que se llega al ámbito local.
- El paisaje presenta zonas muy degradadas y de difícil recuperación.

AMENAZAS

- Prácticas agrarias agresivas con el medio.
- Canalización de ríos y destrucción de sus orillas
- Introducción voluntaria o accidental de especies foráneas con insuficiente conocimiento y valoración sobre sus efectos.
- Desaparición de pasillos verdes, en especial bosques de ribera y lindes.
- Demanda creciente de suelo para infraestructuras.
- Efecto barrera derivado de la creación de infraestructuras lineales.
- La falta de aplicación de políticas de paisaje lleva a situaciones irreversibles.
- Modelo de desarrollo que exige demanda de suelo y ligado con agotamiento de fondos de valle.

FORTALEZAS

- Alta integración de actividades humanas en el ámbito rural.
- Condición de la CAPV como frontera biogeográfica.
- Alto grado de heterogeneidad espacial.
- Inclusión del paisaje en la adecuación y gestión del territorio y de los recursos naturales.
- Existencia de una cartografía del paisaje en la CAPV.

OPORTUNIDADES

- Existencia de la Red Natura 2000 y compromisos de la CAPV al respecto.
- La cada vez mayor percepción social del paisaje y de la naturaleza como parámetros que sirven para valorar la calidad de vida. Preocupación creciente por el deterioro del paisaje rural y urbano.
- Convenios internacionales y desarrollo legislativo de las Directivas de la Unión Europea en estos ámbitos.
- Integración de la conservación de la biodiversidad y del paisaje en las políticas de ordenación y gestión del territorio de forma que se propicie dicha integración incluso fuera de los espacios protegidos
- Desarrollo del sector turístico en el medio rural ligado a la conservación del recurso paisajístico.

Fuente: Elaboración Grupo de personas Expertas

6.6 Kontinenteko uren kalitatea

Ur-politikarako Europako Esparru Arteztarauaren arabera, kalitatea ekosistemaren funtzionamenduaren adierazletzat hartu behar da. Horrekin, historian zehar uraren erabilpen ezberdinetarako kalitateaz lortu duen ikuspegi mugatua gainditu egiten da. Beraz, uraren kalitatea ur horrek sostengatzen dituen ekosistemen eta uraren oinarri diren ekosistemen kalitatearekin batera hartu behar da kontuan

Kontinenteko uren kudeaketarako eta babeserako araudi zabala dagoen arren, EAEko erantzukizunen atomizazioak eta banaketak zaildu egiten du araudi horri aplikatzea. Europako Batasuneko Uraren Esparru Arteztarauak (2000/60/CEE), zeinaren bitartez ur-politikaren eremuan komunitate-mailako ekintza-alorra ezartzen den, uraren prozesu osoa kontrolatzeko premia adierazten du, bai kantitatea eta bai kalitatea kontuan hartuz. Esparru Arteztarau horretan ezarritako irizpideak lortzeko, beharrezkoa da produktzio-sektore guztiek (nekazaritza eta abeltzaintza, industria eta gainerakoek) administrazioek, zerbitzuek eta, oro har, gizarteak parte hartzea.

6.6.1 Ibaiko ekosistemak

EAEko ibaietako uren kalitatea ezagutzeko, Eusko Jaurlaritza "Euskadiko Uren Kalitatea eta Ibaien Ingurugiro Egoera Zaintzeko Sarea" izeneko proiektua ari da lantzen 1993az gero. Zainketa Sare honek uren ingurugiro-kalitatea neurtzen du hiru adierazleren bitartez: Ingurugiro Egoera, Ibaiertzeko Basoaren egoera eta Arrain Faunaren egoera (NBI) izeneko bitartez. Hiru osagai hauekin, laginketa-estazioen egoera ekologikoa definitzen da. Zainketa Sare honen kalitateari buruzko datuen arabera (SCAF, ereduko E indizea), Sareko estazioen % 27 kalitate ona edo oso ona zuten 2000.ean (1999an % 27 eta 1998.ean % 20). Bestalde, Estazioen % 39k kalitate txarra edo oso txarra zuten 2000.ean; % 43k 1999.ean eta % 38k 1998.ean.

⁸ Zainketa Sarean SCAF[®] Eredua deitutakoa erabiltzen da: laginketa-estazioetako Ingurugiro Egoera sailkatu eta kartografiatu egiten da ingurugiro-egoeraren E indizea erabiliz, hau da, BMWP[®] indize biotikoaren balioak eta aniztasunaren D indizea konbinatzen dituena. E indizeak, urek gehieneko bioaniztasun-maila edukitzearen aukera zehazten du, beti ere bere testuinguru geografikoa kontuan hartuz. Gainera, bioaniztasun hori giro ezberdinetako espezie estenoikez (poluzioa jasaten ez dutenez) ordezkaltuta egotearen aukera ere zehazten du. E indizeak bost ingurugiro-egoera bereizten ditu (E1, E2, E3, E4 eta E5). E1 uraren ingurugiro-egoera txarrena da, eta E5ek ingurugiro-kalitate onena adierazten du.

6.6 Calidad de las aguas continentales

Según la Directiva Marco Europea para una política de aguas, la calidad debe considerarse como una expresión del funcionamiento del ecosistema de manera que se supera la visión reducida que se ha considerado históricamente de calidad del agua para los diferentes usos. Así, hay que considerar la calidad como la de los ecosistemas que sustentan y sobre los que se sustenta el agua: ríos, humedales, lagos, etc.

Aunque existe abundante normativa para la gestión y protección de las aguas continentales, en la CAPV la atomización y compartimentación de responsabilidades dificulta la aplicación de esta normativa. La Directiva Marco del Agua (2000/60/CEE) de la UE por la que se establece un marco comunitario de actuación en el ámbito de la política de aguas, señala la necesidad del control de todo el proceso del agua, teniendo en cuenta tanto la cantidad como la calidad de la misma. Es necesaria la implicación de todos los sectores productivos (agropecuario, industrial y demás), administraciones, servicios, sociedad en general, para poder alcanzar los criterios de esta Directiva Marco.

6.6.1 Ecosistemas fluviales

Para conocer la calidad de las aguas de los ríos de la CAPV, el Gobierno Vasco viene realizando desde el año 1993 el proyecto "Red de Vigilancia de la Calidad de las Aguas y del Estado Ambiental de los Ríos del País Vasco". La Red de Vigilancia mide la calidad ecológica de las aguas mediante la utilización de tres indicadores: el Estado Ambiental, el estado del Bosque de Ribera y el estado de la Fauna Piscícola (NBI). Con estos tres componentes se define el estado ecológico de las distintas estaciones de muestreo. Según datos de calidad de esta Red de Vigilancia (índice E del modelo SCAF[®]), un 27% de las estaciones de la Red presentaban una calidad buena o muy buena en el año 2000 (27% en 1999 y 22% en 1998). Por otro lado, en 2000 el 39% de las estacio-

⁸ En la red de Vigilancia se utiliza el denominado Modelo SCAF[®], consistente en la clasificación y cartografiado del Estado Ambiental de las distintas estaciones de muestreo, mediante la utilización del índice de estado ambiental E, que combina los valores del índice biótico BMWP[®] y los del índice de diversidad D. El índice E determina la probabilidad de que las aguas contengan la máxima biodiversidad, teniendo en cuenta el contexto geográfico al que pertenecen, y que además, está biodiversidad está representada por especies propias de los diferentes ambientes y que sean estenoicas (o intolerantes a la contaminación). El índice E diferencia entre cinco estados ambientales (E1, E2, E3, E4 y E5), indicando el E1 el peor estado ambiental de las aguas, mientras el E5 implica la máxima calidad ambiental.

Kalitate txarreko estazio hauen gorakada neurri batean azaltzeko, euskal ibai gatazkatsuetan laginketa gehiago egin direla esan behar da.

Zainketa Sare honez gain, badira uraren kalitatea zaintzeko eta kontrolatzeko beste sare batzuk ere. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da zainketa-sare horien arteko koordinazio handiagoa, batez ere Esparru Arteztarau berriaren transposizioa dela eta. Horri esker, baliabidearen funtzionaltasun ezberdinen azterketa integratu ahal izango litzateke (hornidura, bainua, arrain-bizitza, egoera ekologikoa, ingurugiro-osasuna, etab.).

EAEko ibaien kalitatea gehien baldintzatzen duen faktorea ibai horiek igarotako guneen populaketa-gradua eta industrializazioa da. Horregatik, goi-ibarrak egoera onean daude oro har, eta ibai-zati degradatuena herri garrantzitsuetan agertzen dira. Azpimarratu beharra dago EAEko ibai-zatien % 6k soilik (Arabako guztiak) dutela bainurako kalitate ona. Dena dela, azken urteotan gunen batzuetako uren kalitatea hobetzeko joera antzeman da, batez ere saneamendu-neurriak hartu direlako, lehen zeudenak egokitu eta hobetu egin direlako eta industria batzuk itxi egin direlako. Uren kalitatearen beste faktore garrantzitsu bat nekazaritza da. "Nitratoei" buruzko Arteztaraua ez da behar bezala bete Europako herri gehienetan. EAEn, berriz, nitrato-kontzentrazio handienak Arabako Lurralde Historikoan daude batez ere, non nitrogenatutako ongarriak erabiltzeak uren poluzio-arazoa eragin dezakeen. Arabako Lautadako ekialdea nitratoak eragindako poluzioa jasateko gune ahul gisa dago katalogatuta. EAEko Ibaien Zainketa Sareko laginketa-estazioetan jasotako datuen arabera, estazio horietatik batek ere ez du litroko 50 mg baino gehiagoko nitrato-baliorik erakutsi urteko batez bestekoetan. Nitratoen batez besteko kontzentrazioa edateko urari buruzko 80/778/CEE Arteztarauak zehaztutako gida-mailaren azpitik egon da laginketa-estazio gehienetan.


nes presentan calidad mala o muy mala, 43% en 1999 y 38% en 1998. Este aumento del número de estaciones con mala calidad está en parte explicado por el aumento del número de muestras en puntos conflictivos de los ríos vascos.

Además de esta Red de Vigilancia existen otras redes de vigilancia y control de la calidad de las aguas. Por eso, se considera necesaria una mayor coordinación entre las distintas redes de vigilancia, sobre todo de cara a la transposición de la nueva Directiva Marco. Esto permitiría integrar en el análisis las distintas funcionalidades del recurso (abastecimiento, baño, vida piscícola, estado ecológico, salud ambiental, etc.).


El mayor factor condicionante de la calidad de los ríos en la CAPV es el grado de poblamiento e industrialización de las zonas por las que discurren, de manera que las cabeceras de los mismos se encuentran, en general, en buen estado, siendo en las poblaciones más importantes donde aparecen los tramos fluviales más degradados. Como dato a destacar, habría que comentar que solamente el 6% de los tramos fluviales de la CAPV (todos ellos en Araba) ofrecen una calidad apta para el baño. De todas formas, en los últimos años parece apreciarse una tendencia hacia la mejora de la calidad de las aguas en algunas de estas zonas, lo que se debe a la progresiva implantación de nuevas medidas de saneamiento, la adecuación y optimización de las ya existentes y al desmantelamiento de algunas industrias. Otro factor importante de la calidad de las aguas es la agricultura. El cumplimiento de la Directiva sobre "nitratos" ha resultado insatisfactorio en la mayoría de los Estados europeos. En el caso de la CAPV las mayores concentraciones de nitratos se dan principalmente en el Territorio Histórico de Araba, donde el uso de fertilizantes nitrogenados puede dar lugar a problemas de contaminación de las aguas. La zona oriental de la Llanada Alavesa está catalogada como área vulnerable a la contaminación por nitratos. Según los datos aportados por las estaciones de muestreo de la Red de Vigilancia de los Ríos de la CAPV, ninguna estación de muestreo ha mostrado en 1999 un valor medio anual de nitratos superior a los 50 mg/l, situándose la concentración media de nitratos en la mayor parte de las estaciones de muestreo por debajo del nivel guía marcado por la Directiva 80/778/CEE sobre agua potable.



E indizearen eboluzioa (% estacionen) / Evolucion indice E (% estacionen)



Arrainentzako uren toxikotasun-indize fisiko-kimikoen eboluzioa (% estazio)
Evolución índice de toxicidad físico-química de las aguas para peces (% estaciones)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Saila.
Fuente: Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco. 2001.

EAEko ibai-ekosistemek jasaten dituzten inpaktu kaltegarri adierazgarrienak honako arrazoi hauengatik eragindakoak dira:

- Araztu gabeko isuriak
- Nekazaritza- eta baso-jarduera
- Bideratze artifiziala eta mehartua
- Ibaiertzen okupazioa
- Urtegien kudeaketa txarra
- Landaretza moztea
- Hesi-efektua

6.6.2 Lurrazpiko urak

Lurrazpiko urak nitrato, plagizida, metal astun eta hidrokarburoen eraginez jartzen dira arriskuan eta poluitzen dira. Itsasertzeko guneetan, maila freatikoa jaistearen ondorioz, lurrazpiko ur horiekin ur gazia nahas daiteke.

Los impactos negativos más significativos a los que se ven sometidos los ecosistemas fluviales de la CAPV, son, a grandes rasgos, los debidos a:

- Vertidos sin depurar
- Actividad agrícola y forestal
- Encauzamiento artificial encajonado
- Ocupación de riberas
- Mala gestión de embalses
- Talas de vegetación
- Efecto barrera

6.6.2 Aguas subterráneas

En cuanto a las aguas subterráneas éstas se ponen en peligro y se contaminan por la existencia de nitratos, plaguicidas, metales pesados e hidrocarburos. En las áreas litorales, el descenso del nivel freático puede favorecer la incorporación de agua salada al sistema de aguas subterráneas.

EAEEn, lurrazpiko baliabide hidrikoen kalitatea normalean dituzten erabilpenetarako (gizakiak, industria eta nekazaritza eta abeltzaintza hornitzeko) egokiak direla esan daiteke. Dena dela, ikuspegi orokor hau alde batera utzita, akuifero eta akuifero-sektore batzuetan hondatuta dago uraren kalitatea poluzio-guneen eraginez. Ildo honetan, azpimarratu egin behar da akuiferoen gainean zabortegeiak daudela, eta lurrazpiko urak poluitzen dituzten lixibiatuak bota ditzaketela.

6.6.3 Saneamendua

Europako Batasunak uraren kalitateari buruz ezarritako helburuak lortzeko, beharrezkoa da **saneamendu-programak** aurrera eramatea. Hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko Arzetarauaren betetze-maila nahiko egokia izan da eta kide diren Estatu guztietan helburu horiek betetzeko inbertsio-programa adierazgarriak daude. Beraz, EAEko Saneamendu Planean aurreikusitako lanak eginda emaitza berak lortzen ote diren neurtu beharko da. Horregatik, Lurraldeko Saneamendu Ereduan, hodi-biltzaileak, EDAR zentroak eta itsas azpiko hustubideak egiteko obrak eta industria-isurpen bereziak zuzentzeko obrak jasotzen dira, populazio-nukleoak hiru taldetan banatuz. 500 biztanle baino gehiagoko nukleoek dagozkien saneamendu-azpiegiturak izan beharko dituzte 2005.era. Honako hau zen 1999.eko abenduan 271/91 Arzetarauaren betetze maila: biztanleriaren % 40 betetzen ari zen; % 45 erakitzen ari zen; eta % 15 ez zegoen ados.

Beraz, Arzetarau hau betetzeari dagokionez EAEko egoera ezberdina zen ibai-arroen arabera. Ibai-arro batzuetan oso baxua da Arzetarauaren irizpideetara egokitze gradua (Gipuzkoako Urola edo Deba arroetako gune batzuetan, adibidez, Bizkaiko Agueran edo Araian, eta Arabako Inglaresen), eta beste batzuetan oso altua da betetze-maila. Dena dela, EAE atzeratuta dago alor honetan Europako Batasunarekin alderatuz.

Industriako hondakin-urei dagokienez, sektorekako irtenbidean eskatzen dituen uraren erabilpen- eta tratamendu-sistemen hobekuntzaz gain, premiazkoa da hondakin-urak eta euri-urak bereiztea. Dena dela, Arzetarau honetara egokitzeko, kontuan izan beharko da ingurunean egiten den arazketa-prozesuaren emaitza, eta ez isurpenaren ondoriozko parametroak bakarrik. Ildo honetan, beharrezkoa izango litzateke urak garbitzeko egungo sistemak berrikus-tea, teknologiak, azpiegituren diseinua eta horien manten-tze-lanak kontuan hartuz

En la CAPV, se puede decir, en general, que la calidad de los recursos hídricos subterráneos es adecuada para los usos a los que son destinadas habitualmente (abastecimiento humano, industrial, agropecuario, etc.). Sin embargo, al margen de esta consideración general, hay acuíferos y sectores de acuífero en los que la calidad de las aguas está deteriorada por la existencia de focos de contaminación. Cabe destacar en este sentido la existencia de vertederos sobre acuíferos que pueden seguir aportando lixiviados que contaminen las aguas subterráneas.

6.6.3 Saneamiento

Para alcanzar los objetivos de calidad de aguas fijados por la Unión Europea se hace necesario llevar a cabo **programas de saneamiento**. El cumplimiento de la Directiva sobre el tratamiento de las aguas residuales urbanas ha sido bastante satisfactorio, y en todos los Estados miembros existen programas de inversiones considerables para cumplir sus objetivos. Habrá que evaluar por tanto si la ejecución de las obras previstas en el Plan de Saneamiento de la CAPV consiguen los mismos resultados. Así, dentro del modelo territorial de saneamiento se incluyen obras de colectores, EDARs y emisarios submarinos así como obras de corrección de vertidos industriales específicos, categorizándose los núcleos poblacionales en tres grupos. Así, en el horizonte de 2005 todos los núcleos de más de 500 habitantes deberán contar con las infraestructuras de saneamiento correspondientes. A diciembre de 1999 el grado de cumplimiento de la Directiva 271/91 era: 40% de la población en grado de cumplimiento; 45% en construcción y 15% no conforme.

Por tanto, la situación de la CAPV con relación al grado de cumplimiento de esta Directiva es dispar entre las diferentes cuencas. Hay cuencas con un bajo grado de adecuación a los criterios de la Directiva (como algunas zonas en las cuencas del Urola o del Deba, en Gipuzkoa, el Agüera en Bizkaia o el Araya y el Inglares en Araba), hasta cuencas con un elevado grado de cumplimiento. No obstante la CAPV se presenta con un fuerte retraso respecto a la UE en este campo.

Por lo que respecta a las aguas residuales industriales, además de la mejora en los sistemas de utilización y tratamiento del agua, con soluciones sectoriales, es necesario llevar a cabo la segregación de las aguas residuales y pluviales. De todas formas, para adaptarse a la Directiva, se deberá tener en cuenta el resultado del proceso de depuración en el medio, y no sólo los parámetros del vertido resultantes. En este sentido sería necesario revisar los sistemas de depuración de aguas actuales, teniendo en


Populazio-nukleo txikietan isurpenen eta bere garbiketaren partzuergoko kudeaketa egokia egiteko aukera aztertu beharko litzateke (tratamendu individualak eta tratamendu kolektiboa egiteko ondorengo homogenotzea).

Hurbilketa kualitatibo gisa, ondorengo koadroan EAEn uren kalitatean eragiten diren ingurugiro-presio nagusiak jasotzen dira:

cuenta las tecnologías existentes, el diseño de infraestructuras y el mantenimiento de las mismas.

En el caso de pequeños núcleos de población se debe analizar la posibilidad de recurrir a una adecuada gestión consorciada de los vertidos y de la depuración de los mismos (pretratamientos individuales y homogeneización posterior para tratamiento colectivo).

A modo de aproximación cualitativa el siguiente cuadro recoge las principales presiones ambientales en la calidad de las aguas que se realiza en la CAPV:



DATU ADIERAZGARRIAK EAEN:

KONTINENTEKO UREN KALITATEA

- Ibaien Zainketa Sareko estazioen % 27k kalitate ona edo oso ona erakutsi zuten 2000. urtean (% 27 1999.ean eta % 22 1998.ean).
- Estazioen % 39k kalitate txarra edo oso txarra zuten 2000.ean; % 43k 1999.ean eta % 38k 1998.ean).
- Ibaietan ez dira antzeman nitratoek eragindako inpaktuak.
- Populazioaren % 40k saneamendu-azpiegiturak ditu; % 45arena eraikitze-fasean dago; eta % 15ek ez du saneamendurik.

DATOS RELEVANTES EN LA CAPV:

CALIDAD DE LAS AGUAS CONTINENTALES

- En 2000 el 27% de las estaciones de la Red de Vigilancia de los Ríos presentan calidad buena o muy buena (27% en 1999 y 22% en 1998).
- En 2000, el 39% de las estaciones presentan calidad mala o muy mala, 43% en 1999 y 38% en 1998.
- No se han detectado impactos por nitratos en los ríos.
- El 40% de la población cuenta con infraestructuras de saneamiento, un 45% en fase de construcción y un 15% no dispone de saneamiento.

Ondoren, AMSA Matrize gisa, EAeko **kontinenteko uren kalitatea** aztertzeko faktore adierazgarrienak azaltzen dira:

KONTINENTEKO UREN KALITATEA

AHULTASUNAK

- EAeko arazoak ez du erreferentziarik Europa-mailako arazotan, bere ibai-bideen berezitasunagatik eta industria- eta populazio-kontzentrazio altuagatik.
- EAeko ibai askotako uren kalitatea baxua da.
- Ingurunearen kudeaketan sakabanaketa dago eskumenei dagokienez (kalitatean, lurralde-antolamenduan, komunitate barruko isurpenetan, komunitateen arteko isurpenetan). Baliabidearen kudeaketan ikuspegi globala eta koordinazioa falta da.
- Ez dago kontrolik presioengan eta, ondorioz, Administrazioek ahalmen gutxi dute zigorrak ezartzeko.
- Uholdeetako uren tratamendu eza.
- Garbiketa-azpiegitura batzuetako instalazioek modernizatu beharra dute.
- Nitratoek poluzio puntuala eragiten dute akuiferoetan.

MEHATXUAK

- Komunitateko saneamenduari buruzko araudiaren eskakizunak betetzeko behar diren azpiegiturek kostu handia dute.
- Akuifero eta ubideetatik gertu dauden zabortegei eta poluitutako lurren ondorioz, lurrazaleko eta lurrazpiko urak poluitu egiten dira.
- Jarduten ez bada, ongarrri eta pestizidak erabilpen intentsiboak kutsadura zehaztugabea eragin dezake.

SENDOTASUNAK

- Dagoen araudia nahikoa da.
- Ibaietako uren kalitatea eta ingurugiro-egoera zaintzeko eta kontrolatzeko sareak daude.
- EAEn garapen teknologikorako gaitasun handia dago (zentro teknologikoak eta enpresak) tratamendurako teknologia berriak martxan jartzeko.
- Sentsibilizazio altua dago gizartean eta industrian, eta laguntzeko prest daude.

AUKERAK

- Arazoa oro har ondo ezagutzen da.
- Ura kudeatzeko Komunitate mailako alorra ondo definituta dago eta EAera estrapola daiteke.
- Industrian teknologia garbiak eta arazketa-azpiegiturak ezartzeko aukerak daude.

Iturria: Aditu Taldeak egindakoa

A continuación se señalan, en forma de Matriz DAFO, los factores más significativos de análisis en la **calidad de las aguas continentales** para la CAPV:

CALIDAD DE LAS AGUAS CONTINENTALES

DEBILIDADES

- El problema de la CAPV no tiene referencia en los problemas europeos en su conjunto por la especificidad de sus cursos fluviales y la alta concentración industrial y de población.
- Una buena parte de los ríos de la CAPV presenta una baja calidad de sus aguas.
- Dispersión de competencias en la gestión del medio (calidad, ordenación del territorio, vertidos intracomunitarios, vertidos intercomunitarios). Falta de visión global y de coordinación en la gestión del recurso.
- Falta de control sobre presiones y consecuente escaso poder sancionador de las Administraciones.
- Carencia de tratamiento de aguas de avenidas.
- Alguna de las infraestructuras de depuración existentes precisan de una modernización de sus instalaciones.
- Existe contaminación puntual en acuíferos por nitratos.

Amenazas

- Elevado coste de infraestructuras necesarias para atender requerimientos de saneamiento de la normativa comunitaria.
- Contaminación de las aguas superficiales y subterráneas como consecuencia de la existencia de vertederos y suelos contaminados en las proximidades de los acuíferos y cursos de agua.
- Contaminación difusa debida al uso intensivo de fertilizantes y pesticidas en caso de no actuar.

Fortalezas

- Existencia de normativa suficiente.
- Existencia de redes de vigilancia y control de la calidad de las aguas y del estado ambiental de los ríos.
- Alta capacidad de desarrollo tecnológico en el entorno de la CAPV (centros tecnológicos y empresas) para la puesta en marcha de nuevas tecnologías de tratamiento.
- Alta sensibilización social y empresarial dispuesta a colaborar.

Oportunidades

- Buen nivel de conocimiento de la problemática en su conjunto.
- Marco comunitario de la gestión del agua bien definido y extrapolable a la CAPV.
- Posibilidad de implantación de tecnologías limpias e infraestructuras de depuración en la industria.

Fuente: Elaboración Grupo de Personas Expertas

6.7 Itsasoko eta itsasertzeko ingurugiroa

